



Sua. Arbizuko buruhandi berria.

Suarekin, festa

San Juan festak Izurdiagan,
Uharte Arakilen eta Arbizun

Makina bat su piztu dira bart
Sakana guztian barna

Altsasun, gaur, San Juan eta, aste-
azkenean, San Pedro

>>>6

**UEMAk euskararen
aldeko politika
ausartak eskatu ditu** >>>3

**668 sakandarrek
eman zuten odola
joan den urtean** >>>9

**Hauteskunde
orokorrak
igandean
izanen dira** >>>8



**Bakaikuk
Iriondo kalea
konponduko du
aurten** >>>5



**Altsasun
hondakinen
birziklatzea %40
igo nahi da** >>>5



**1936ko
oroimenetik
sortutako
ikuskizuna** >>>15



**III. Triku-trail jokatuko da Etxarri
Aranatzen igandean, 9:30ean**
Nafarroako mendi lasterketen txapelketarako
eta Euskadiko koparako puntuagarria da >>>11

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Uxue
ZORIONAK potxola!!
Gure gaztetxoak 8 urte
betetzen ditu!! Muxu
handi bat familiaren
partez.



Oihan
ZORIONAK!!
Aurrera Barçazalea!!
Ongi pasa zure egunean
eta San Juanetan ere!
Muxu potolo bat.
Egoitz, aita eta ama.



Oihan
ZORIONAK!!
Izozkiak ez dira faltako
uda honetan, eh! Mila
muxu. Arbizuko eta
Aguaraingo familia.

Garagarriak

24-30

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Ardanfusion. Garagarriaren 24an, ostiralean, 20:00etan Olatzagutiko Sarasate plazan.

Araitx Bizkai. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 24:00etan Arbizuko kanpineko Amari aretoan.

Magia

Magia parrastan. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Lakuntzako Sorginak tabernan. **Imanol Ituiño.**

Mendi irteerak

Nesken IV. mendi marxa. Olatzagutia-Lizarragako San Adrian. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 9:00etan Olatzagutiko San Migel plazatik abiatuta. 10:00etan Morterutxoko aparkalekutik.

Santa Marina. Garagarriaren 26an, domekan, 8:30ean, Altsasuko Foru plazatik. **Dantzaleku Sakanako mendi ataleko emakumeen taldea.**

Isaba. Garagarriaren 26an, domekan, 7:00etan Altsasuko Mendigoizaleen egoitzatik.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Ollokarizketa-Altsasu. 117 km. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 8:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. Zikloturista taldea.

26. Vital martxa. 40 km. Garagarriaren 26an, domekan, 8:30ean Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldearen Altsasuko bajeratik.

Erakusketak

Ingurumena Altsasuko institutuan. Garagarriaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasu BHI.**

Hizketaldiak

Arropa garbia injustizia itzalik gabe. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranazko plazan. **Setem.**



SAN JUAN FESTETAN MURGILDUTA. Atzotik festa ospakizunetan murgilduta daude Izurdiagan, Uharte Arakilen eta Arbizun. Altsasun ere San Juan eguna ospatuko dute gaur eta asteazkenean San Pedro. Auzateak eta bazkari-afariak ez dira faltako.



Goian Arbizuko auzatea eta behean, uhartearrak mahaiaren inguruan. ARTXIBOA

Tailerrak

Arimaren kantu eta dantzak. Garagarriaren 26an, igandean, 10:00etatik aurrera Arbizuko kanpineko Amari aretoan. **Lena Andrea Ulrich.**

Azokak

Zorri Azoka. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 11:00etatik 14:00etara Etxarri Aranazko plazan.

Bestelakoak

Rio abierto topaketa. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Arbizuko kanpineko Amari aretoan.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 24an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztín. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Utzi bakean Venezuela! Euskal Herria iraultza bolivariarrekin! Garagarriaren 24an, ostiralean, 20:00etan, Altsasuko udaletxe parean. **Askapena.**

Auzolana Enneco parkean. Garagarriaren 25ean, larunbatean, 9:00etatik 13:00etara Etxarri Aranazko Danbolintxulo dermioan. **Nafarroa Bizirik fundazioa.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



EH Bildu

Adolfo Araiz. Garagarriaren 24an, ostiralean, 19:30etan Olatzagutiko San Migel plazan. Ondoren auzatea.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Aritz Munarrizekin triku trailaz
- Oihartzuna musika taldea
- Asteko albisteen errepasoa

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE


EDUARDO SANTOS

 Gaur, 11:30ean, Guaixen ON-LINE ELKARRIZKETA
 Egin zure galderak www.guaixe.eus bidez

ezkaatza >>
SAKANA

UEMAk gobernuaren jarrera eskertu eta hizkuntza politika ausartak eskatu ditu

Arbizuko eta Etxarri Aranazko Udalak kide dituen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) agerraldia egin zuen atzo. UEMAren izenean Eneka Maiz Ulaiar Etxarriko alkateak hartu zuen hitza: "argi utzi nahi dugu udalerrri euskaldunekiko hizkuntza politikak aldaketa izan duela Nafarroako Gobernu berriarekin. Lehen urtean, UEMAren eta Nafarroako Gobernuaren artean zubiak eraiki eta lankidetzarako ildoak zehaztu ditugu. Aspaldian luzatuta genuen eskuari heldu dio gobernu honek, eta udalerrri euskaldunetako ordezkari publikoak garen heinean, zintzoki eskeretzen dugu zabaldu den bidea".

UEMAko ordezkariak gaineratu zuenez, "oraindik, ordeza, erabakia ausartaketa aurrerakoiak behar ditu Nafarroako hizkuntza politikak." Egiteko asko dagoela esan eta hiru arlo nabarmendu zituen.

Lehena Nafarroako Liburutegi Publikoko Sareko eremu euskalduneko liburuzain lanpostuetan euskara jakitea nahitaezkoa iza-



UEMAko dauden Nafarroako udaletako ordezkariak, erdian Etxarriko alkatea.

teko eskaera da. Gaur egun euskararen ezagutza meritua da baina Euskararen Legea betetzeko lanpostu horietan hizkuntza eskakizuna zehaztea eskatu du UEMAk, herri euskaldunetako elebidunak ez diren liburuzainak jarri izan dituztelako. Liburutegi horien artean daude Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutia. Etxarri Aranatz eta Ola-

tzagutiko liburuzain lanpostuak hutsik daude, inork ez du plaza.

Udalerrri euskaldunetako herriartaren %70etik gora euskaldunak diren bitartean haien osasun etxetako hizkuntza eskakizunak %27 besterik ez dira. Nafarroako Gobernuak eginen duen lan eskaintza publikoan eremu euskalduneko 12 lanposturako euskara eskakizuna gehitu du. UEMAko

kideen ustez, "oso aurrerapauso txikia da." Osasunbidean euskara normalizatzeko UEMAk gobernuari hiru Foru Dekretu aldatzeko eskatu dio. Azkenik, Nafarroako Gobernuari Udal Lege berri bat eskatu dio UEMAk, zeinak "arnasguneetan hizkuntza politika ausarta egiteko lege babesa" eman duen. Udalerrri euskaldunetako hizkuntza irizpideak zehazteko aukera emanen lieke horrek.

Harremanetan

Maizek azaldu duenez, legegintzaldiko aurreneko urte honetan UEMA Euskarabidearekin "zubiak modu natural eta egokian osatuz" joan dira. Lehen bilera otsailean izan zuten eta ordutik elkarlanean ari dira. UEMAk hiru ildo aurreikusten zituen: administrazioa euskalduntzeko bitartekoak eta hizkuntza politikak aztertzea; udalerrri euskaldunen zaintzari arreta berezia eskaintzea. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa eginenez behar den kasuetan, eta euskarari eusteko neurriak aztertuz

eta, azkenik, herritarrek ahalduzko zein kontzientziazteko ekimenak kontuan hartzea, besteak beste euskararen arnasguneei buruzko tailerrak jendarteratzea eta, batez ere, UEMAren hezkuntza proiektua kontuan hartzea, udalerrri euskaldunetako ikasleak eta irakasleak kontzientziazteko.

Harremanen ondorioz, Hezkuntza Departamentuak interesa agertu zuen arnasguneei buruzko tailerrak bertatik bideratzeko, eta UEMAren hezkuntza proiektua ezagututa, azken hilabeteotan heldu den ikasturterako ekimenak lotzen aritu gara bi aldean artean. Bestetik, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan laguntzea aurreikusi da. Hirigintza egitasmoek hizkuntzan izan dezaketen eragina aztertzen da tresna horrekin, eta ondorioen arabera, neurri zuzentzaileak ere proposatzen dira. EAEko Udal Lege berriak badu. Euskara sustatzeko politikak bulkatzeko diru-laguntza deialdia bikoiztu egin du gobernuak, 300.000 eurora iritsiz.

>>

AEKren barnetegi ibiltari bat Etxarrin bukatuko da


 Barnetegi ibiltariako kideak mendi puntan. WWW.AEK.EUS

Euskal Herrian barnako ibilbidea oinez edo bizikletaz osatu paisaiatzatuz, tokian tokiko euskalkiak

eta ohiturak ezagutuz; eta, bitartean, euskara praktikatzeko. Hori eskaintzen dute AEKren barne-

tegi ibiltariak. AEKren aurtengo bizikleta barnetegiaren Zarautzen hasiko da garilaren 30ean eta agorrilaren 15ean Etxarri Aranatz bukatuko da. Tartean, Biosfera Erreserba, Bizkaiko zubia, Oliteko gaztelua, Matxixako lurmuturra, San Juan Gaztelugatxekoa, Arabako Lautada, Urbasa, Andia, Ultzama, Irunberriko eta Arbaiungo arroilak, Anboto, Erronkari, Butroi gaztelua, Otsagi, Irati, Aralar, Omako baso margotua edo Baztan bisitatzeak aukera, 1.000 km inguruko ibilbidean.

AEKren barnetegi horren edo beste batzuen inguruko informazioa jaso nahi duenak www.aek.eus web orrian, udabarnetegi@aec.eus e-postara idatziz edo 946 464 000 eta 673 200 100 telefonoetan jaso dezake.

Arbizu
Embutidos y patés

Tradizioaren zaporea

Ongi pasa San Juanetan!!!

www.embutidosarbizu.es
info@embutidosarbizu.com
 T. 948 460 628

ARBIZUKO SAN JUANAK
 2016 Ekainaren 23tik 29ra



Zoila Berastegi

Narrazioak I

astekoa

Arearekin gazteluaren hirugarren dorrea eraikitzen ari zen, larru gorritan, plastikozko pala eta rastriloa eskuan zituela. Olatuak ondo ezagutzen zituen. Bazekien batzuk urrutitik txikiak ziruditen arren, uste baino gehiago luzatu zitezkeela itsasertzean, eta horregatik, uraren hatzaparretatik babestu nahieran, zulo bat egin zuen bere gaz-

teluaren inguruan.

Gurasoak non zeuden ere bazekien. Loredun itzalkinaren eta dutxara joateko bidearen artean. Ea, ea... bai, hantxe zeuden. Aitonaegunkaria irakurtzen bere aulkitxoan, ama eguzkia hartzen, aita eta Olaia kartaka, eta amona bere iloba kuttunari begiak gainetik kendu ezinda, bost minutu-ro lehen aldia balitz bezala agur-

tzen. Peruk bere arreba Olaia berarekin arean jolasean ibiltzea nahikoluke, baina Olaiak argi eta garbi esan zion ez zuela ume kontuetan aritu nahi. Hala ere, mutil argia zen Peru, behatzailea, eta bazekien zerk eragin zuen bere arrebaren jarreran tamainako aldaketa aurreko udatik honetara: hutsik zeraman titi-zorroa. Peruke zuten inongo zalantzarik,

bainujantziaren goiko zati hura zen errudun bakarra, eta ez zion inondik inora uda izorratzen utziko. Pentsatua zuen bezala, gaua heltzean, arrebaren titi-zorroa aparta-hoteleko bizilagunen terrazara botako zuen, bai horixe.

Bere gaueko planazorrosten ari zen, urrutian itsasontzi bat zeruertzetik erortzeko zorian ikusi zuen arte. Oihuka hasi zen, ika-

rak jota. Olaiak urrutitik erantzun zion: "mozolo, mundua borobila da, ez da eroriko!". Baina mutil argia zen Peru, eta bazekien denek ez zutela mundu borobil batean bizitzeko eskubidea; egunkarrietan ikusi bezala, batzuen txalupak zeru-mugan betirako desagertzen ziren, eta beraz, Olaia titi-zorroaren teoria faltsua zen guztiz.

barrutik kanpora

Nafarroako **Hondakin Planaren** parte-hartze prozesua

Nafarroako hondakin plan berria egiteko parte-hartze prozesua itzulera deritzan fasean aurkitzen da. Futbolarekin konparatuz, esango genuke "lehen itzulia" zirriborro baten aurkezpena izan zela, hondakinak kudeatzeko aukera desberdinen indargunak eta ahuleziak aztertzeko. Hau mankomunitate eta udalerririk desberdinak biltzen dituzten eskualdeka burutu zen.

3MBk bi jardunalditan parte hartu zuen, bata ekarpenak egi-

teko eta bestea itzulerakoan, biak ere Irurtzunen burututakoak. Nahiz eta ustez behintzat Nafarroan errausketa baztertua izan, harriduraz ikusi genuen nola lehen bileran errefusa erraustea den aurreikusten den aukeretakobat. Koerrausketa gisa aurkeztu zitzaigun errauskailua ez den beste instalazio batzuetako labetan eta beste ekoizpen prozesu batzuk aprobetxatuz hondakinak erraustea.

Hau da, argi eta garbi esanda,

FCC hondakinaren multinazionalak zementua ekoizteko Olaztin dagoeneko badituen instalazioetan erraustea hondakinak.

3MB zementu-fabriketan erraustea kontra dagoen plataforma izanik, argi utzi nahi dugu errausketa ontzat hartzen duen hondakin plana ezin dela hondakin plan ona izan. Gainerako mankomunitateek, erakundeek, instituzioek eta parte hartu zuten pertsonak ere iritzia bera adierazi eta aukera hori bazter-

tzeko eskatu zuten.

Baina gure harridura ez zen hor amaitu. Jardunaldi hauetako dinamizatzaileek koerrausketa eskualdeguztietan arbuia izan dela adierazi eta gero, aukera hau bazter daitekeen jakiteko txosten bat egin beharko dela esan ziguten, eta txostenak ezezkua badio, hondakinak ezinbestean erre egin beharko direla.

3MBren ustez hau ez da batere serioa. Ezin da hondakinak ez erraustea aukera plazaratu

eta honek parte-hartze prozesuaren eztabaidan babes zabala jaso ondoren, berraztertu behar dela esan, errausketaren aldeko lobbeyek ezartzen duten hierarkia aitzakiatzat hartuz.

Ez dago demokrazia errespetatu behar ez dela dioen araurik. Eta are gutxiago gizakion osasunaren eta biziaren gainetik pasa daitekeela esan dezakeenik.

<http://olaztinerrausketaridez.blogspot.com.es/>

Hiru Mugak Batera

objektibo tik



Pasako al da?

Hala dirudi, gaur bukatzen baita hauteskunde kanpaina. Astelehenetik aurrera zer gertatuko den beste kontu bat da. Harremanak, elkarriketak, negoziazioak... izanen dira. Di-da itxi? Emaizik ez badute abenduan berriro bozkatzeko deialdia?



Natura errea

Joan den urteko argazkia da goikoa. Urte bat juxtu. Zuhaitzak San Juan suak gertuegi zituen eta hainbat hosto erreta bukatu zuten. Zuhaitza bere tokian zegoen, sua ez. Gaur halako asko ez egotea espero dugu. Gure herrietako erromeriek edo igandelariek ere naturan halako aztarnarik ez uztea nahi genuke.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eu

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eu
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eu
MAKETATZAILEA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eu
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eu
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eu

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Erkuden Ruiz Barroso
ZUZENTZAILEA: Felix Altzelai
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eu
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eu
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eu
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburordetza

UTZITAKO TXAKURRA JASOA: Foruzaingoak jakinarazi duenez, utzitako txakur bat jaso zuen Ziordiko gasolindegian herenegun. Iturri berak gogorazi duenez, txakur

hala uztea delitua da. Foruzaingoa txakurraren nagusia bilatzeko lanean ari da.

sakanerria >>

>> Bakaiku

Konponketak Iriondo kalean



Bakaikuko Iriondo kaleko zati bat konpontzea erabaki du Udalak.

Bakaikuko Udalak 288.420,98 euroko aurrekontua du. Egoitz Urri-tza Lazkoz alkateak jakinarazi digunez, aurreikusitako herrilan handiena Iriondo kalearen zati baten konponketa da. "Kaleak berritu zirenean konpondu gabe gelditu zen eta dermioko bide baten modukoa da gaur egun. Erauntsi handiak daudenean erreka bat dirudi eta urak kaxkailu guztia Elizpea kalera ateratzen du. Gelditzen diren zuloak konpondu dira, baina behin betiko konponbidea behar du."

Herriaren goiko eta beheko aldeak (Elizalde kaleko garbitokia) lotzen ditu Iriondo kaleak. 185 metro luzeko tarte batean kaxkailuarekin dago eta haren ordez por-lana jarriko dute. Euria behar bezala jasotzeko V itxura izanen du zoruak, erdian urarendako erretena jarriko dute eta ezker-eskubi malda txikia izanen du. Lanek 30.000 euroko aurrekontua dute eta haiek lehenbailehen eman nahi ditu udalak, udazkenerako despidituta egoteko. Enpresa hartzaileak 25 egun izanen ditu lanak egiteko. Halako lanetarako deialdirik ez dagoenez, udalak ez du diru-laguntzarik eskatuko.

Langile berria

Bakaikuko eta Iturmendiko Udalak idazkaria partekatzen dute. Eta duela hiru astetik administra-

ri bat ere. Lanaldi erdian ari da. "Idazkaria aspaldi ari zen lan handia zuela eta ezin ziola erantzun". Horregatik, bi udalak ados jarri eta lanaldi erdian ariko den administraria kontratatu dute. Idazkariarekin batera ari da herri batean eta bestean, "martxa hartzen". Etorkizunean harrera hobetzeko hartu ditzaketen neurriak aztertuko dituzte udalak.

Azken horrekin lotuta, "udala herriari zabaldu, hurbildu eta gardentasuna bilatuz, ostiralero zinegotzi bat herriaren etxean dago, 18:30etik 20:00etara. Edozein eskera, ekarpen edo kritika egiteko aukera dago." Bi hilabete daramate horrela. Bestalde, udalaren berri emateko herrian barna informazio oholak jartzea aztertzen ari dira.

Diru kontuak

Bakaikuko Udalak katastroaren balioak eguneratu eginenditu eta hori egin ahal izateko 5.000 euro bideratuko ditu. Alkateak esan digunez, udalaren ekonomiaren egoera onada. "187.000 euroditugu. Kaleak berritu ziren eta lan horientatik 2022ra arte urtero 25.000 euro ordainduko ditugu. Nahiago dugu horrela ordaintzen joan, edo zer gauza gerta eta aurre egiteko laukorik ez izatea baino."

>> Altsasu

Birziklatzea handitzeko pausoa

Gaikako bilketa gaur egun %26 da eta materia organikorako edukiontzi marroia jarrita %65era igo nahi da. Horretarako, Altsasuko Udalak eta Sakanako Mankomunitateak hitzarmena sinatuko dute. 140 bat edukiontzi marroi jartzea aurreikusten da, baina aurretik informazio kanpaina egingen da

Materia organikoa bereziturik jasotzeko herrian edukiontzi marroia, 5. edukiontzi, jartzeari Altsasuko Udalak baiezkua eman zion joan den ostegunean. Udalak Sakanako Mankomunitatearekin sinatu beharreko akordioari oniritzia eman zioten Geroa Baik, EH Bilduk, PSNk eta UPNk; Goazen Altsasu abstenitu egin zen. 5. edukiontziaren ezartzeko bi erakundeek hitzarmena San Pedro ondoren sinatuko dute.

Altsasun gaikako hondakinen bilketa %26koa da eta helburua %65era igotzea da. 5. edukiontziaren ezarpena arrakastatsua izateko ezinbestekoa izanen da altsasuarren parte-hartzea. Mank-eko Hondakinen Zerbitzuak kanpaina egingen du, hiru helbururekin: altsasuarrak sistema aldatzeko eta bere ezaugarriez informatu; hondakinak, materia organikoa barne, egoki bereiztearen inguruan informatu eta sentsibilizatu eta, azkenik, altsasuarrak sistema berriari parte-hartzera animatzea.

Hori guztia lortzeko Altsasuko etxe guztietara azalpen gutuna bidaliko da, parte-hartze bilerak egingen dira (hiru erronda), Baratzeko Bide plazako bagoia informazio gune gisa zabalduko da, kartelak jarri, bideoa egin eta beste hainbat gauza egingen dira. Informazio kanpainari sei hilabeteko iraupena aurreikusi diote, irailean hasi eta otsailean bukatzeko. 5. edukiontziaren martxoan hasiko lirateke erabiltzen. Hura indarrean dagoen bitartean langile bat horretan ariko da.

5. edukiontziaren jartzeko kanpai-

Hautsitako edukiontziak



Gaur egun Altsasun dauden edukiontzi asko hautsita daude. Ollok jakinarazi duenez, Altsasuko Udalak hautsiak dauden edukiontzi zerranda bidali dio Mank-i horiek ordezkatzeko eskatuz. Mendi aldea mankomunitateak 400 edukiontzi enkantean salgai jarri zituen eta, berriki, Mank-ek bigarren eskuko edukiontzi horiek 9.000 eurotan eskuratu ditu. Edukiontzi horiek Altsasun hautsita daudenak ordezkatzeko eta enpresetatik jasotako eskarrei erantzuteko erabiliko ditu. Altsasukoen ordezkatzea pixkanaka egingen du.

na hori hasieran Nafarroako Hondakinen Partzuergoak ordaindu behar zuen. 25.694 euro ematekoa zen, Mank-ek propio horretarako proiektua aurkeztu zuelako. Sakanakoarekin batera Nafarroako beste mankomunitate batek aurkeztu zuen proiektu bat. Eta, horregatik, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak irizpidea aldatu eta proiektuak diruz lagundu beharrean mankomunitateak duten populazioaren arabera laguntzea erabaki du. Astelehenean egingen duen bileran berretsiko du irizpide aldaketa hori. Beraz, Mank-ek 6.694 euro besterik ez ditu jasoko Altsasuko kanpainarako eta gainontzeko 19.000 euroak bere poltsiko-

tik ordaindu beharko ditu.

Saltorako urte bat

Altsasu gaika %26 birziklatzetik %65era pasatzera urte batean egin nahi da, 2018ko martxorako. Javier Ollo Martinez alkateak aitortu duenez, "helburu oso handinahia da eta betetzea edo behintzat kontzientzia-erazioaren bidez hurbiltzea espero dugu." Sistema ezarri eta urtera balorazioa udalak eta Mank-ekin egingen badute ere, hiru hilero bilketa datuei jarraipena egingen diete.

Arrautseko
-TABERNA-
Ongi pasa festak!
Kale Nagusia 5
31839 Arbizu
948 46 01 29

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astehenetik ostiralera
Eguneko menua
9€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 • Altsasu

Ondo pasa festetan!
HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILA
Egizu topa!
Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279
hijosdegoikotxea@yahoo.es

LARRAZA
ARDOAK
948 460 014
Zugarreta, 2 • Etxarri Arantz

San Joan ospakizunak Sakanan



Aurreko astean Lizarragako San Adrianak ospatu ziren. Orain Izurdiagak, Uharteko Arakilek eta Arbizuk hartuko dute lekukoa.

IZURDIAGA

Egitaraua

>> Garagarzaroak 24, ostirala

20:00etan Txupinazoa.
20:30etan Hamaika Aldiz taldearen kontzertua.
22:30etan Kalderete afaria.
01:00etan Iñaki Bizkai akordeoilaria.

>> Garagarzaroak 25, larunbata

11:00etan Zeramika tailerra eta artisauak.
11:30etan Futbol 7ko hiruko txapelketa.
12:00etan Puzgarriak.
13:00etan Bermuta*.

* Sukaldea eta jantokia erabili nahi duenarendako prest egonen dira.

16:00etan Etxez etxeko erronda, mozturoriturik, gaia: Mexiko. Lakunzano etxetik hasita tabernara.
20:00etan Dantzaldia DJ Felix-ekin.
22:30etan Herri afaria, "trajez" jantziak.
01:00etan Dantzaldia DJ Felix-ekin.

>> Garagartzaroak 26, igandea

11:00etan Meza. Hamaiketako irteeran.
12:00etan Puzgarriak.
14:30etan Herri paella.
17:00etan Puzgarriak eta haur jolasak.
17:00etan Mus txapelketa.
19:00etan Txokolate jatea.
20:00etan Dantzaldia Iñaki Bizkai akordeoilariarekin.
22:00etan Ondarren afaria eta hau pena nik.

UHARTE ARAKIL

Egitaraua

>> Garagarzaroak 24, ostirala

12:00etan Meza San Juanez omenez.
12:45etan Kalejira Uharteko Arakilgo konpartsa eta gaiteroekin.
13:00etan Auzatea.
13:30etan Uharteko zortzikoa.
14:30etan Parrillada, herri bazkaria*.

* Udalak ardoa, ogia, mahaiak eta aulkiak jarriko ditu.

18:00etan Kuadrillen arteko jolasak.
20:00etan Auzatea.

>> Garagartzaroak 25, larunbata

10:00etan Erronomia Zamartzerako Uharteko eta Artikako konpartsekin eta gaiteroekin. Auzatea
13:30etan Ihabargo Batukada.
14:30etan Jubilatuen bazkaria.
16:30etik 18:00etara Bazkalostean animazioa Iñaki akordeoilariarekin.
18:00etan Galtxorratx dantza taldearen erakustaldia.
19:00etan Herriari itzulia fs5 areto futboleko ligako txapelkunekin: Uharteko Arakilgo Aralar Mendi 2 taldea. Zorionak.
20:00etan Auzatea.
20:15etik 22:00etara Puro Relajo taldearen mexikana kontzertua.
22:00etan Zezensuzkoa.

00:30etik 04:30era Dantzaldia Kapri taldearekin.

>> Garagarzaroak 26, igandea

13:00etan Kalejira Uharteko Arakilgo konpartsa eta gaiteroekin.
13:00etan Auzatea.
14:30etan Haurren bazkaria.
16:00etan Apar festa.
17:30etan Haurrendako jolasak.
18:30etan Txokolate-jatea.
19:00etan Sardina eta txistorra jatea, Aralar Mendi elkarteak antolatuta.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Karrikadantza taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.

ARBIZU

Egitaraua

>> Garagarriak 24, ostirala.

San Juan eguna.

10:00etan Dianak Jaiak txarangarekin.
11:30etan San Juanera goigera.
12:00etan Meza nagusia San Juanez.
12:30etik 14:00etara Haurrendako puzgarriak plazan.
13:00etan Aate (Alda Bide).
13:30etan Buruhandiak eta erraldoiak.
13:15etan Sarien banaketa (loreak, kartela).
13:30etan Txaranga plazan.
17:00etan Kalejira Jaiak txarangarekin.
17:30etan Zunba klasea.
18:30etan Play-back txapelketa, hip-hop eta dantza erakustaldia.
20:00etan Aate.
20:00etan Preso eta iheslarien aldeko bilkura plazan.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia La banda del jefe Bigun taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:30etik 2:00etara Dantzaldia La banda del jefe Bigun taldearekin.

>> Garagarriak 25, larunbata.

Elkartasun eguna

10:00etan Dianak herriko fanfarrearekin.
12:00etan Artisau azoka.
12:00etan Aate (Etxerat).
12:30etik 14:00etara Haurrendako puzgarriak plazan.
12:30etan Jolasak.
13:00etatik 13:30era Buruhandiak eta erraldoiak.
13:00etan Tortilla lehiaketa.
15:00etan Herri bazkaria eta bertsolariak: Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi.
17:15etan Antxotapantxa antzerki emanaldia.
17:30etik 19:30era 4 x 4.
18:30etan Herri kirolak eta arbizuarren eta daniarren arteko desafioa.
20:00etan Aate.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
24:00etatik 3:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

>> Garagarriak 26, igandea.

Kintoen eguna

10:00etan Dianak herriko txistulariekin.
11:00etan Kintoak pixket eskien.
12:00etatik 14:00etara Haurrendako puzgarriak plazan.
13:00etan Aate (zotola).
13:00etan Elai Alai dantza taldea.
13:30etan Buruhandiak eta erraldoiak.
Arbizu gora gora kantak:
13:30 biltzen hasteko ordua.

14:00 lehenengo kanta sorta.
14:30 bazkaria eta kantaldia.
17:00etan Piñatak.
17:30etan Piperropil tailerra.
19:30etik 21:30era Herriko musikariak.
20:00etan Aate eta piperropilak.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:30etik 1:00etara Dj Bull.

>> Garagarriak 27, astelehena.

Gazteen eguna

10:00etan Dianak.
12:00etatik 14:00etara Haurrendako puzgarriak plazan.
12:00etan Haurren pilota txapelketako finalak.
12:00etan Aate (Argi Bidea).
13:00etatik 13:30era Buruhandiak eta erraldoiak.
12:30etan Altxorren bila.
13:00etan Triki poteoa.
14:00etan Gazte bazkaria.
16:00etan Gazte jokoak.
17:00etan Pailazoa.
18:00etan Talo tailerra.
18:00etan Elektrotxufa elektrotxaranga.
20:00etan Aate.
23:00etan Kontzertuak: ETS eta Skabidean.

>> Garagarriak 28, asteartea.

Haurren eguna

12:00etatik 14:00etara Jolas parkea.
13:00etan Aate (Jubilatuak).
13:00etatik 13:30era Buruhandiak eta erraldoiak.
15:00etan Haurren bazkaria.
17:00etan Mus, brixka eta truk txapelketa.
17:00etatik 19:00etara Jolas parkea.
20:00etan Aate.
20:00etatik 22:00etara Erronomia Zesuma taldearekin.
21:00etan Emakumeen afaria.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:30etik 1:30era Erronomia Zesuma taldearekin.

>> Garagarriak 29 asteazkena.

Jubilatuaren eguna

11:00etan Dianak herriko fanfarrearekin.
12:00etatik 14:00etara Haurrendako puzgarriak plazan.
12:00etan Jubilatuen meza.
12:30etan Aate (Udala).
12:30etan Jolasak.
12:30etan Helduenentzako orogarrien banaketa.
13:00etatik 13:30era Buruhandiak eta erraldoiak.
13:00etan Jubilatuen luntxa.
13:00etan Arbizuko Xapiru trikitixa eskola.
17:30etan Aurraren festa.
18:30etan Izozkiak haurrendako.
20:00etan Aate.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Kupela taldearekin.
23:00etatik 00:30era Dantzaldia Kupela taldearekin.

DORRAO

San Juanera bitan

Nenau herriko despopulatutako eliza zen San Juan ermitara bitan joanen dira dorrobarrak asteburuan. Gaur, 19:00etan, aurreneko aldiz, bezperak eta arrosarioa izanen baitira. Haien ondoren, kontzejuak

>> Altsasu



Altsasuarren egun handia

Heldu den asteazkenean, San Pedro egunarekin, altsasuarren bilgune bihurtuko da, atzera ere, San Pedro zelaiko hariztia. Goizter abiatuko dira altsasuarren mahaiak eta aulkiak jartzera eta gosaria prestatzeko sua egitera. Udala 10:00etan abiatuko da basora, Altsasuko txistulariak lagun dituela. Segizioa San Pedro zelaira iristen denerako, 10:30ean, ibilgailuendako sarrera mugatu egiten da eta basoko festa gunera joan nahi duenak Urdiaingo bidea erabili beharko du. Mugikortasun mugatua duten pertsonendako egiten da salbuespena.

Behin udala zelaian dela ardo kupe-lak zabalduko dira. Elizkizunaren ondoren, plazan zortzikoa dantzatuko da. Eta, bitartean, koadriletako sukaldariak jatekoak prestatzen hasiko dira, besteak barraketan poteoan ari diren bitartean. Mahaira 14:30 aldera eseriko dira. Handik 17:00etan jasoko dira asko, udalak puruak banatzean. Egiteko horren ondoren alkateak zortzikoa dantzatuko du. Arratsaldean joatearekin batera, herrira lekualdatuko da festa eta Foru plazan Joselu Anaiak taldeak 20:00etatik 1:00etara dantzaldia eskainiko du.

OHARRAK

Eguraldiak lagunduko ez balu erromeria Burunda pilotalekuan ospatuko da. Bestalde, erromeriara autoz berandudoazenek Dantzalekugoi-ko futbol zelaia aparkaleku gisa erabiltzeko aukera izanen dute, eta, beraz, bide bazterrean aparkatzea debekatuta egonen da. Udaletik gogorarazi dute festak eta ingurumenaren zaintzak bat egin behar dutela. Horregatik, hariztia bere horretan mantentzeko altsasuarren laguntza eskatu du zaborrak biltzen, zabor ontziak eta kontainerak erabiltzeko. Ermita ondoan komunak kimikoak egonen dira, haiek egoki erabiltzeko eskatu da udal-letik. Horrekin batera, gosari bazkariak prestatzeko pizten diren suak partekatzeko aholkua eman du udalak. Horrela, zorua gutxiago higatuko da eta belar gutxiago galduko da. Aldi berean, zuhaitz txikien ondoan surik ez egiteko eskatu dute.

Altsasuko Udalak gogorarazi du debekatuta daudela suzuriak, petardoak, kristalezko objektuak, zizta-tzaileak edo sukoiak. Aldi berean, DYAk kudeatutako osasun laguntzarako gune bat izanen dela jakinarazi du. Arduraz kontsumitzeko gomendioarekin batera, festa parekideen aldeko aldarria egin du Altsasuko Udalak. Horren harira etxeko eta familiako ardurak denon lana direla gogorarazi du eta ezezkoak ezetz esan nahi duela beti gaitzatu du.

» Unanu

Kontzejuak auzolanaren ordenantza berri du

Auzolana arautzen duen ordenantza aldaketa onartu du Unanuko Kontzejuak. Javier Mozo Lizarraga kontzeju-buruak azaldu digunez, "kontrola hobea eramateko" aldatu dute ordenantza. Mozok azaldu digunez, unanuarrek urtean hirutan herriaren mesederako lan eta zerbitzuak egiten dituzte. Larunbatetan egiten dituzte, 8:00etatik 14:00etara. "Dagoenaren arabera, garaian garaikoa egiten da, herria txukun mantentze-

ko." Hala, heldu den asteen hasiko diren festei begira, eszenarioa jarri beharko dute.

Ordenantza onartu berriaren arabera, Unanuko etxe bakoitzeko kide bat egonen da beharturik auzolana egitera. Kide horrek ez du zertan eroldaturik egon eta bere etxea ez da zertan ohikoa izan. Hala ere, salbuespenak ezarri dira: 18 urte baino gutxiago eta 55 urte baino gehiago dituztenak, %25etik gorako ezintasun-maila duten



ezindu fisiko, psikiko eta zentzumenezkoak dituztenak eta preso daudenak. Auzolanaren ordenantza jaso denez, Unanuko Kontzejuak behartua dago auzolanari direnek izan ditzaketen istripuen arriskuak estaltzeko.

Maiztasunaz

Urtean gutxienez hiru eta gehienez bost auzolanera deitu ahalko du kontzejuak eta egunak ezin izanen dira bata bestearen segidan izan. Deialdia 48 ordu lehenago egin beharko du. Urte batean egingakoak ez dira hurrengo urtean kontuan hartuko. Larunbat goizetan egingen dira auzolanak, "sal-

bu eta justifikatuta legokeen kasu berezia bada."

Bakarren batek auzolanera joaterik ez badu, garaiz jakinarazi eta beste egun batean ordezko lan bat jarriko zaio. Bestela, lanerako egozia den beste pertsona batek ordezkatu dezake. Auzolanaz libre gelditzeko 25 euro ordaindu beharko dira. Auzolana edo ordainketa ez egiteak kontzejuari eskubidea emanen dio, etxe horri zenbait onura ukatzeko: herri-lurren alokairua, NPE aitorenaren hektareen banaketa, herri-lurren gozamina, egur-loreak. Auzolana Unanuko Kontzejuak kide batek zuzenduko du.

» Altsasu

Altsasuko Udalak 350.000 euro bideratu ditu inbertsioetarako

730.085,05 euro

Oraingo 349.995,21 euroko inbertsioei aurtengo aurrekontuetan jasotako 380.089,84 euroko inbertsioak gehitu behar zaizkie.

Ostegunean egindako bilkuran Altsasuko Udalak diruzaintzako gerakinean dauden 1.895.417,15 euroetatik 349.995,21 euro hainbat lan egitera bideratzea erabaki zuen aho batez. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, aurki udalak inbertsio gehiago egiteko erabakia hartuko du. Estatuko Gobernuak ezarritako mugengatik, udalak aurreikusitako lan guztiak urtea bukatu aurretik despedituak egon beharko dute.

Energia

Energiarekin loturiko bi lan egingen ditu udalak. Alde batetik, igerrileku estaliko eguzki plakak konponduko dira horrela gas kontsumoa %37 murrizteko. Lanak hartzen dituen enpresak 37.300 euro jasoko ditu. Bestetik, udal txeko berogailua konponduko da. 1.987ko azpiegiturak akats ugari ditu eta udaleko lanen brigadak konponduko du. 12.400 euro bideratuko dira horretarako. Bestalde, asfaltatze eta zebrabide goratuak egiteko 78.563 euroko inbertsioa egingen du udalak.

Parkeak

Haurrendako jolas parkeak konpondu eta osatzeko 24.200 euro

bideratuko ditu udalak. Haietatik 14.520 euro Baratzeko Bidekora bideratuko dira. 9.680 euro, berriz, Otadiko parkerako izanen dira. Bi parkeetan bina zabu eta txirrista bana jarriko dira. Udalak, aldi berean, Zumalakarregi plazako jolas parkea konponduko du. Plaza horretako zorua eta sareak berritzeko diru-laguntza eskatu behar denez, beste jolas parke batez ordezkatzea baztertu da.

Frontoia eta Aita Barandiaran

Bestetik, udalaren lan brigadak bi lan gehiago izanen ditu. Alde batetik, Burunda pilotalekuko zeharaldeko fatxada aldatuko dute. Materialak aldatu eta porlanarekin eta pinturarekin ordezkatuko dute. Fantxadaren mantentze lanak merkeago izateko udalak 1.020 euro bideratuko ditu. Gainera, udaleko langileek Aita Barandiaran adinduen egoitzako ondoan barandila kendu eta berri bat jarriko dute. Lan horrek 5.225 euroko balioa izanen du. Azkenik, basoan egin beharreko inbertsioei dagokionez, 70.526,78 euro bideratuko dira 2014-2023 Altsasu Baso Planean jasotako lanak egiteko. Zehazki, Balankalekuko eta Ulaiar goitzeko pistak konponduko dira.



Berriki zebrabideak egin dituzte Altsasuko zenbait kaleetan.

Kaleetako lanak

| Non | Zer | Dirua | Zeinek |
|--|------------------------------------|--------|------------------------|
| Urbasa kaleko espaloia 2-12 | Espaloia berri eta zabaldu | 22.800 | Enpresa batek |
| Otadiko Kristo Deuna plaza | Zorua hormigoizko batez ordezkatu | 9.300 | Udalaren lanen brigada |
| Zelai kalea | Zebrabideak konpondu | 6.800 | Udalaren lanen brigada |
| Beheko benta, Bakea, Galtzada, Auzobide-Solana eta Felix Arano | Abiadura murriztekoak jartzea | 7.560 | Udalaren lanen brigada |
| Pilotajauku | Asfaltatzea eta zebrabide goratuak | 18.775 | Enpresa batek |
| Gartzia Ximenez-Beheko benta | Asfaltatzea | 4.970 | Enpresa batek |
| Geltoki kalea | Asfaltatzea | 2.577 | Enpresa batek |
| Gipuzkoa kaleko aparkalekua | Asfaltatzea | 4.555 | Enpresa batek |
| Instituto arteko bideko zubia | Asfaltatzea | 1.960 | Enpresa batek |
| Larrainbide | Asfaltatzea | 935 | Enpresa batek |
| Ibarmusu | Asfaltatzea | 4.855 | Enpresa batek |

Etorkizuneko egitekoak

| Non | Zer | Dirua | Zeinek |
|-------------------------|--|-------|---------------|
| Beikolar auzoa | Asfaltatzea | 4.830 | Enpresa batek |
| Cava bidea | Asfaltatzea eta zebrabide goratuak | 6.500 | Enpresa batek |
| Ondarrria industrialdea | Asfaltatzea eta zebrabide goratuak | 6.236 | Enpresa batek |
| Gartzia Ximenez | Zebrabide goratuak kentzea eta berria egin | 6.385 | Enpresa batek |

UHARTE ARAKIL

San Juanak ongi pasa!

Mendikoa Kafetegia

Mari Jose ileapaindegia

Arbizu
948 460 912 · 686 192 252

Ongi pasa festetan!

POLIKIROLDEGIKO TABERNA

Goizeko 8:30etatik aurrera zabalik

Sandwichak
Bokatak
Plater konbinatuak
Bazkariak

Errazioak
Hanburgesak
Pintxoak
Gosariak

681 128 888
ARBIZU

>> Irurtzun

Irurtzundarrek zirkulazio arauak bete ditzatela nahi dute

Udalak sustatu duen parte hartze bilerekin esker errepidean zein akats egiten diren diptiko bidez erakutsi die herritarrei. Kontzientiazio kanpaina jarri dute abian.

Maialen Huarte Arano

Gaizki aparkatzeak, azkarregi ibiltzeak edota behar ez den tokietatik pasatzeak sor ditzakeen arazoak ikusarazi ditu Irurtzungo Udalak diptikoen bitartez bizilagunei. Herritarrek eurek bilera parte-hartzailetan eskatuta, zirkulazio araudia gogorarazi diete bizilagunei eta dauden betebeharrak aintzat hartzeko eskatu diete. Maiz izaten dira herrian bigarren ilaran autoak aparkatuta, edo errepide nagusitik abiadura handian pasatzen direnak, ez dituztenak elbarrituentzako aparkalekuak errespetatzen edo bajeren parean autoa uzten dutenak. Horiek guztiak ekidin nahi dituzte eta horretarako bandoen bidezko ohartarazpenak eta diptikoak etxez etxe pasa dituzte. "Kontzientiazio kanpaina da abian jarri duguna, jendea gogorarazi behar zaizkio arauak eta guztion onerako direnez, bete ditzaten beharrezkoa



Emakume talde bat Irurtzungo zebra bide batetik pasatzen.

da", azaldu du Aitor Larraza Irurtzungo alkateak.

Pasa den legealdian ere jakinararen gainean jarri zituzten herritarrek: "Aurreko urteetan ere hala-ko ekimenak egin dira, baina, beharrezkoa da noiz edo noiz gogoraraztea, denbora pasatzen denean jendea erlaxatu egiten da eta berriz ere nolana ibiltzen dira autoarekin", jakinarazi du. Hain zuzen, joan den legealdian Irurtzunerdi aldeko Amaia kalea autobusendako eta autoendako ixtea erabakizuten. Hala, herriaren erdial-

detik trafikoa gutxitzea lortu da. Ikastetxearen inguruan ere auto anabasa sortzen zen. Irakasleak aparkatzeko tokirik gabe gelditzen ziren, adibidez. Arazo horiek guztiak konpontzen ahalegindu ziren.

Oraingoan trafikoa moteltzea, egoki aparkatzea eta araurik ez haustea nahi du udalak. Horretarako, egindakoaz gainera, gaizki jokatzeko duten kotxei txartel bat utziko diete udaleko langileek, ohartaraziz egin duten akatsaz. "Irurtzungo Udalakez du eskume-

Urtebeteko lanaren balantzea

Urtea egin berri du hauteskundeak izan zirenetik. Horrekin batera, Irurtzungo Udalera aldeketa iritsi zen. EH Bilduren esku utzi zuten herritarrek gidaritzeta eta ordutik Aitor Larraza dute alkate. Pasa den legealdian onartu zituzten aurrekontuekin aritu ziren hasieran, eurek egin zituztenak bukatzen. Orain, herritarren parte hartzearekin batera diru-partida berriekin ari dira. EH Bilduk adostua duen programaren zati handi bat eraman dute aurrera, nahiz eta oraindik goiz den guztia osatu ahal izateko. Larrazak nabarmendu du zailtasunak ere izan dituela legealdi hasiera honetan: "Gogorrena, jendea zuregana hurbiltzen denean zailtasun edo larrialdi egoera batekin laguntza eske eta ezin duzunean ezer egin. Gauza asko ez daude udalaren esku eta kosta egiten da halako egoerei ezezkua ematea edo ezin ezer egitea", adierazi du.

nik isunak jartzeko eta horretara ez dugu iritsi nahi. Jendea ohartarazi eta kontzientzia dadin nahi dugu", nabarmendu du Larrazak.

>> Iturmendi / Altsasu

Emakumeenganako indarkeriarekin lotutako bi atxilotuta

Foruzaingoak jakinarazi duenez, emakumeen kontrako indarkeria delituengatik pasa den astean bi burundar atxilotu zituzten. Aurrena, 30 urteko gizon altsasuar bat izan zen. Bi delitu egotzi dizkiote: kautela-neurria hausteagatik eta tratu txarregatik. Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako 1. Epaitegiak hartu du auzia. Larrialdientelanoan genero indarkeriako beste eraso baten berri jaso zen eta Altsasuko polizia etxeko patruila Iturmendiara joan zen. Desobedientziagatik eta agenteei erresistentziagatik foruzainek 24 urteko iturmendiara atxilotu zuten.

112

Sexu erasoak salatzen telefonoa

>> Ziordia



Patxi Bengoetxea, sinatzen.

Udala Ennecorekin

Ziordiko Udalak Nafarroa Bizirik fundazioarekin lankidetzeta hitzarmena egin du. Patxi Bengoetxea Ziordiko alkatearen sinadura daraman akordioaren arabera udalak legegintzaldi honetan Enneco, haritzaren memoria proiektuarekin kolaboratzeko konpromisoa hartu du.

>> Arakil



Arakildarrek Pasaian izan ziren iaiz.

Baionarat

Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta 30 arakildarrek baino gehiagok Baionako bidea hartuko dute bihar, 8:30ean. Behin Lapurdiko hiriburuan, 10:00etan, Euskal Museoa bisitatu gidatua izanen dute. Handik aterata, 11:00etan, arakildarrek bazkal garaira arteko tartea libre izanen dute. Hala, katedrala edo merkataria bisitatu, kaleetan galdu edo Baiona Kantuz ekimenean parte hartzeko aukera izanen dute. Kalostrope jatetxean bazkaldu ondoren, 17:00etan Donibane Lohitzunera joko dute, hondartzara. Itsas ertzeko herriatik Arakilerako bueltako bidaiari 20:00etan ekinen diote.

SAKANA

Sei hilabeteren ondoren, hauteskunde orokorrak berriro

Joan den urteko abenduaren 20ko hauteskunde orokorren ondoren, alderdi politikoak ez dira ados jarri eta ez da gobernu berri sortu. Horrek hauteskunde deialdi berri baten bezperan egotera ekarri gaitu. Igandean 15.600 bat sakandarrak botoa emateko eskubidea izanen dute. Bi aste kanpainaren ondoren, hauteskontziak 9:00etatik 20:00etara egonen dira zabalik, norbera erroldatuta dagoen tokian botoa eman dezaten. Abenduan horrela bozkatu genuen sakandarrak: EH Bildu 2.816 boto (%26,25); Ahal Duguk 2.227 (%20,76); Geroa Bai 1.994 (%18,59); UPN-PP 1.673 (%15,59); PSN 1.077 (%10,04); Ciudadanos 338 (%3,15) eta Orain Batera (IU eta Batzarre) 234 (%2,18).

Emaitzak: www.guaixe.eus

Igandean gauean www.guaixe.eus web guneak Sakanako emaitzen berri emanen du. Bide batez, hauteskunde kanpainan alderdi eta koalizioei eskaintza egin diegu: web orriaren on-line elkarrizketa, web orriaren argitaratzeko idatzia eta astekarriaren hauteskunde agendaren berri ematea. Elkarrizketen aukera Geroa Bai (Anika Lujan), EH Bilduk (Irati Jimenez) eta Elkarrekin Ahal Duguk (Eduardo Santos) baliatu dute. Azken horrek gaur 11:30ean erantzunen ditu irakurleen galderak. Idatziena PPK eta EH Bilduk. Horiek guztiak www.guaixe.eus-en irakurgai daude.

>> Altsasu

Geroa Bai: "Egindakoa Altsasurekin dugun inplikazio argiaren adibide garbia da"

Legegintzaldiko aurreneko urtearen balorazioa egin berri du Geroa Bai. Javier Ollo Martinez alkateak nabarmendu zuenez, Altsasu herri anitza da eta, horregatik, "hasieratik gainontzeko indarrek akordio zabaletara iristeko borondatea azaldu dugu". Horregatik ere, gainontzeko alderdiei ardurak eskaini zizkieten. Lau indar biltzen dituen Tokiko Gobernu Batzardea eta EH Bilduk eta PSNk dituzten batzardeak horren lekuko direla adierazi zuen Ollok; azken bi indar horien lanaren aitor-tza egin zuen.

Errepasoa, sailka

Urteko sailkako errepasoa egiterakoan Geroa Baitik garbiketa bertikaleko mozioa nabarmendu zuten: "adierazpen askatasunaren eta barneko irudiaren, eta ondorioz herriaren kanpo irudiaren, arteko oreka bilatzen du. Ondorioz, herriaren irudia hobetu dela esan digute altsasuarrek eta kanpotarrek".

Ekonomia garatzeko garaian Ollok Altsasuk dituen berezko ezaugarriak kontuan hartzeko garrantzia nabarmendu zuen. Sakanako Plan Estrategikoa indarrean jartzeko lanean ari direla adierazi zuen. Bestetik, ekintzailetasuna sustatzeko Cederna-Garalurrekin sinatutako akordioa nabarmendu du koalizioak. Aldi berean, Altsasuko Dendarien Elkartearekin aurrera



Pedro Jimenez, Javier Ollo eta Julen Diaz, balorazioa eginen.

eramandako ekimenak, Sakanako Enpresarien Elkartearekin izandako bilerak eta Bidelagun turismo elkartearekin sinatutako hitzarmena ere nabarmendu ditu Geroa Bai. Iragarri du Batutak materialak birziklatzeko bi hilabeteko ikastaroa eskainiko duela.

Hirigintzari dagokionez, Ollok argitu zuen "ebatzi gabe urteak daramaten txostenei" heldu diete, horregatik udal arkitektoaren lanaldia handitu zela. Alkateak aurreratu zuenez, kirol guneak kudeatzen dituen Atabo enpresa publikoaren "2015eko kontuetako galerak 2014koak baino askoz txikiagoak izanen dira. Udalaren eta Ataboren arteko koordinazio estutu nahi dugu, kontuen hobekuntza langileen antolaketari eragiteko

ere." Sutearen ondoren Txirinbulo haur eskola zabalik mantendu dela eta berria egiteko lanei berretzeko "alkateak emandako bultzada politikoa eta udalaren lan teknikoa" ezinbestekoak izan direla nabarmendu zuen.

Bestalde, ospakizunen antolaketan herriko kolektiboen parte-hartzearen aldeko apustua berretsi zuen. Memoria historikoaren arloan, Otsoportilloko lezeke hezurduak ateratzeko eskatuz Nafarroako Gobernuari zuzendutako udalaren eskaera azpimarratu zuen alkateak. Txakurren pozoitzea gogoan, jarrera zibikoei buruzko esku-orria lantzen ari direla azaldu zuen. Azkenik, orain arteko lan ildoarekin segitzeko asmoa azaldu zuen Geroa Bai.

» Etxarri Aranatz

Zorri Azokak jantzigintzaren trapu zikinak erakutsiko ditu

Larunbatean, 11:00etatik 14:00etara Etxarri Aranatzko plazan

Egitasmoa berraztertu ondoren, Zorri Azokan biltzen diren ekoizleek azoka baino zerbait gehiagorekin bueltatu nahi zuten. Hala, hileroko maiztasuna baztertu eta urtean lau zapabost iragartzera pasaziren. Gainera, azoka bakoitzean sortzen den topagunean gizarte gai bat lantzeko asmoa dute eta egungo gizartearen alternatibak, beste-lako aukerak, daudela erakutsi

nahi dute. Halakoak gonbidatuen laguntzarekin eginen dituzte.

Kafe-tertua, desfilea...

Bihar Setem erakundearen izanena da Zorri Azokan. Kafe-tertua izanena da eta hura baliatuz Setem-ek bi kanpainen berri emanen du: *arropa garbia* eta *aldatu zure zapatak*. Aurreneko kanpainak ehungintzako langileen lan baldintzak hobetu nahi ditu eta langileei botere gehiago eman nahi die. Horretarako bi ildo lantzen dituzte: kontsumitzaileak kontzientziatu eta langileen lan baldintzak egokiak direla ziurtatzeko enpresei presio egitea. Arroparekin gertatzen den moduan bigarren kanpaina oine-



Postuen artean kuxkuxeatzeko aukera bikaina izango da bihar Etxarri.

rako bi ildo lantzen dituzte: kontsumitzaileak kontzientziatu eta langileen lan baldintzak egokiak direla ziurtatzeko enpresei presio egitea. Arroparekin gertatzen den moduan bigarren kanpaina oine-

takoan hornidura kate etikoa, jasangarria eta gardena eskatzen ari da Europan.

Moda desfilea ere hartuko du Zorri Azokak. Pantxika Lamur eta konpainiak modelo lanak eginen

dituzte eta bertan sortutako arropa eta oinetakoak erakutsiko dituzte Etxarriko pasarelan, 12:30ean. Zapatarari, Erabili eta Setem-en jantzi eta oinetakoak erakutsiko dituzte.

Azoka

Barazki ekologikoak, bertako produktuak, artisautza, artea, elkartzun-gunea, erakundearen informazio eta zabaltze gunea eta musika. Horiek dira Zorri Azokaren oinarritzko osagaiak. Horiei gonbidatuak gehitzen zaizkie. Oraingoan: Izaskun txotxongiloak, Zapatarari oinetako egilea eta Txus Grutzeta bitxigilea. Azokakoekin harremanetan jarri nahi duenak zorriazokainfo@gmail.com e-postaren bidez edo Facebook bidez egin dezake.

» SAKANA / Arbizu

Gizarte Lana hezkuntzarako baliabide bihurtzeko proiektu pilotua Sakanan

Altsasu institutua izan da hura hartu duen 13 ikastetxeetako bat eta Nahia Urkia Ihabar arbizuarra han egin ditu praktikak

Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) Gizarte Laneko graduako 15 ikasle herrialdeko 13 ikastetxeetan praktikak egin dituzte otsailetik garagartzarora bitartean. Ez ziren edonolako praktikak, proiektu pilotu baten zati baitira. NUPek eta Nafarroako Gobernuak garatutako egitasmoaren xedea Gizarte Lana lanbidea ikastetxeetan baliabide iraunkor bihurtzea da. Proiektu pilotua ikastetxeetara eramaterakoan, ikastetxe bakoitzak bere errealitate eta testuingurura egokitu du. Bestalde, ikasleek praktika programaren gaitasun espezi-fikoak garatzeko aukera izan dute. NUPen Hezkuntza Gizarte Lana praktikatzeko gida didaktiko bat prestatuko dute orain.

Alberto Jauregi Virto irakaslea izan da praktiketako tutorea, eta berak jakinarazi digunez, 2012-2013 ikasturteaz geroztik ari dira euren ikasleak halako praktikak egiten, "baina ikasturte honetan bai parte hartu duten ikastetxeen kopuruagatik, bai gizarte lana ikastetxeetako baliabide iraunkor bat izatea xede duen proiektu esperimental bat antolatzea ga-



Nahia Urkia, goian, ezkerretik hirugarrena.

tik". Heldu den ikasturterako programa osoa eskaintzeko asmoa dutela aurreratu digu. Aurten praktikak egin dituzten NUPeko ikasleak Gizarte Laneko graduako 3. mailakoak ziren. Haien artean Nahia Urkia Ihabar arbizuarra zegoen.

Irakasleak azaldu digunez, gaur egun ikastetxeetan orientatzaileak eta irakasleak izaten dira ikasleekin egon behar dutenak. "Baina hori egiten badute ez dituzte egin beharreko beste gauza batzuk egiten." Ikastetxeetako gizarte eta hezkuntza errealitatea kontuan izanik, gizarte langi-

leen egingizun eta zereginetako batzuk zerrendatu ditu Jauregi: "gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko planak eta diagnostikoak egitea; ikastetxeetako beste profesional batzuekin eta adingabeekin sarean lan egitea; gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea ikasgelatik kanpo (atsedenaldiak eta jantokia); banakako arreta arazoak dituzten ikasleei; lankidetzaren curriculumeko programetan (genero berdintasuna, elkartzun...) eta eskola absentismoaren gizarte eta hezkuntza arreta eta jarraipena."

» SAKANA

668 sakandarrek eman zuten odola joan den urtean

Nafarroako Odol-emaileen Elkarteak, Adonak, jakinarazi digunez, Sakanan 1.145 kide zituen elkarteak joan den urtean. Haietatik 668 izan ziren

2015an odola eman zutenak. Nafarroan, guztira, 20.000 bat izan ziren Adonak jakinarazi zuenez. Gainera, odola ematera nafar gehiago animatu ziren joan zen urtean, 1.575 hain ziren ere. Emaileri berri horietatik 62 sakandarrak ziren. Odol-emaileekin nahiduenak biakera ditu. Lehen, elkarteak autobusa, autohemoteka, bere herrira iristen denean hara hurbiltzea. Heldu den asteazkenean Etxarri Aranatzaren izanena da eta ostegunean Olatzagutian, 17:30etik 20:30era. Bestea, elkarteak Iruñeko ospitale gunean dagoen Odol Bankutik pasatzea da (astelehene-tik ostegunera, 8:00etatik 20:00etara eta ostialero 8:00etatik 14:30era). Informazio gehiago nahi duenak www.adona.es web orrian du.

%5,63

Ibarreko populazioaren kopuru hori da Adonako kide.

» SAKANA



Mank-eko astearteko batzarra.

Mank-ek hiru lanpostu betetzeko deialdia egingen du

Sakanako Mankomunitateak plantilla organikoan hutsik dauden hiru lanpostu betetzeko deialdia egingen du aurten. Herenegun egindako batzarrean erabaki zen deialdi horiek egitea. Mank-ek bete nahi dituen lanpostuak honakoak dira: gerentea, Ur Zerbitzuko langile batena eta hondakin teknikariarena. Aitor Karasatorre Muguruza presidentea deialdiak lehenbailehen egiteko asmoa azaldu du.

Bestalde, Sakanako Plan Estrategikoa aurrera eramaterako Nafarroako Gobernuak eta Mank-ek hitzarmena sinatu zuten. Haren bidez, ibarreko erakundeak 250.000 euro jaso ditu. Diru hori Sakanako Garapen Agentziak kudeatu behar duenez, herenegun bileran agentziari diru hori kudeatzeko ardura eman zitzaion. Horretaz aparte, edukion-tzi txikiak erosteko (150 eta 250 litrokoak) aurrekontu aldaketa onartu zen. Erosketa hori egiteko 12.000 euro bideratuko dira.

Juanito
SAGARDOTEGIA
Fernando urkia 11 Arbizu
948 460 404

SAN JUAN ONAK PASA!

GONBIDATUTA ZAUDE!

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA

948 576 357

Liburunda
Altsasu

Burunda kalea 6
948 469 201
liburunda@hotmail.es

Enkargatu liburuak uztailaren 30a baino lehen eta dron baten zozketan parte hartu.

Testu liburuak erosi eta %10 itzuliko dizugu eskola materiala erosteko.



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Marisa Gamboa Garcandia



Beti gogoan edukiko zaitugu

Meza Lakuntzako elizan, ekainaren 25ean, larunbatean, arratsaldeko 18:30ean.

Lakuntzako 51ko kintoak

Eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
eskelak@guaixe.eus-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburra.com

1 HIGIEZINAK

4 HARREMANETARAKO

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburra.com-en **doan**
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
 lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
 Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130m karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Lakuntzan pisua salgai. 1. solairua, 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. 90 m². Tel 618 883 077.

Pisua salgai Etxarri Aranatzen. 100 m², 4. solairua, igogailua badu, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trasteleku. Argitasun handikoa, San Donatorantz begira. Interesatuak deitu 619 50 30 95 telefonora.

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

ESKUALDATU

Fisioterapia zentroa eskualdatzen da. Bi kontsulta eta errehabilitazio gelarekin. Sakanan. Telefonoz ez da informatzen. Tel 627 650 916.

OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Haur baten erloju beltza galdu da Altsasun. Pultsometroa dauka. Tel 647 37 02 41. Sakelako telefonoa galdu nuen Urdiainen, ekainaren 11n, larunbat gauean. Norbaitek topatu badu, dei dezala 948 461 647 ra, eskertuko da.

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

IKASTAROAK

Olatzagutiko Udalarren Berdintasun Zerbitzuak batukada feminista sortzeko tailerra antolatuta du. Garilaren 1ean izanen da 16:00etatik 20:00ora. Izen ematea berdintasuna.olazti@gmail.com e-postaren bidez egin behar

da, hilaren 29a baino lehen.

OHARRAK

Odol-emaileak. Ekaina: Etxarrin 29an, 17:00-20:30. Olaztin 30ean, 17:00-20:30.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua esukaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariaren aldeko abenduaren 30 eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartzatuz erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrantea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartzatuz proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretarako. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa

jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabezin> Euskonwes ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

3MBk kontu korrantea zabaldu du Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko

produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri.

Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztiak, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina. Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendako Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu, baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak

behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio gutzia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juri-dikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeko Emakumearen Bilgunea jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

JAIOTZAK

- **Sare Senar Madinabeitia**, ekainaren 3an Arbizun.
- **Jose Antonio Abajo Abadiño**, ekainaren 11n Irurtzun.
- **Gael Quesada Gomez**, ekainaren 17an Irurtzun.
- **Adur Pires Araña**, ekainaren 17an Arbizun.
- **David Abajo Castro**, ekainaren 18an Zuhatzun.

EZKONTZAK

- **Manolo Senra Iglesias eta Nerea Trinidad Chocarro**, ekainaren 18an Irurtzun.
- **Mikel Burillo Resano eta Nerea Verano Martinez**, ekainaren 20an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

ARETO FUTBOLA

ARALAR MENDIKOEI OMENALDIA: FS 5 Nafarroa Areto Futbol Txapelketako zilarrezko liga irabazi du Aralar Mendi taldeak eta mai-

laz igo da. Merezitako omenaldia jasoko dute uhartearrek bihar, 19:00etan, herriko festetan. Herriari itzulia emango diote.

Pilota

XLV. Olaztiko San Migel Txapelketa: 9. jardunaldia jokoan

Guztira 7 partida jokatuko dira

Asteburuan XLV. Olaztiko San Migel Elkarte Pilota Txapelketako 9. jardunaldia jokatuko da. Txapelketa herrikoi honetan 43 bikote lehiatzen ari dira, hiru mailatan banatuta. Eta afizionatuen txapelketan, aldiz, 21 bikote.

9. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan

3.maila: Arratibel-Uitzi / Zubiria-Sergio

2.maila: Diaz de Gereñu-Gzlez / Iñaki-Joanes

Nagusiak: Azketa-Atxa / Iribarren-Cordon

1.maila: Senar-Alustiza / Ansotegi-Etxeberria

Larunbatean, 17:00etan

3.maila: Ieregi-Murgiondo / Baztarrিকা-Gaizka

2.maila: Olmos-Lopez / Garzia-Arana

1.maila: Beunza-Iurgi / Zelaia-Grados

Triatloia

Ekain Imaz txapeldun Eguesibarren

Sakana Triatloi taldeko neska-mutikoak primeran XVII. Eguesibar Haur Triatloian

Larunbatean XVII. Eguesibar Haur Triatloia jokatu zen. Sakana Triatloi Taldeko neska-mutikoak ongi aritu ziren. Benjamin mailako mutilen proba Ekain Imazek irabazi zuen. Alain Razkin hirugarrena sailkatu zen eta Aitor Aldunate hogeitabosgarrena. Nesken benjamin mailan Nahia Imaz hirugarrena sailkatu zen. Eta kimuen mailako mutiletan Hegoi Lakuntza 18.a sailkatu zen.

Atletismoa

Ramirez garaile Araian

1,5 km-ko proban gailendu zen

Igandean VI. Araia Krosa jokatu zen, hainbat modalitateetan. Probanagusi (6,1 km) Endika Donnay izan zen garailea (19:42). Asier Palacios 32.a sailkatu zen (22:33), Kike Aldasoro 82.a (27:15) eta Aingeru Azazeta 83.a (27:16). Distantzia laburrean, BEA lasterketan (1,5 km) Jose Ramon Ramirez altsasuarra izan zen txapelduna (5:08).



Mendi lasterketak

III. Triku Traila osatzera

Igandean, 9:30ean Etxarriko Kanpinetik abiatuko da Etxarriko mendi lasterketa (21 km). Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria izateaz gain, Euskadiko Koparako puntuagarria izango da aurten Triku Traila

Urte osoko lana egin ondoren, Triku Trail Kirol Taldea azken uki-tuetan murgilduta dago, igandean jokatuko baita hainbat babesle-ren laguntzarekin batera –Etxarri Aranzako Udala, Etxarriko kanpina, Sakana Kooperatiba, Xalok kirolnutrizioa eta makina batestabilezimendu eta komertzio- antolatutako III. Triku Trail mendi lasterketa. Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria izateaz gain, aurten Euskadiko Koparako puntuatuko du Triku Trailek, eta horregatik juniorren eta kadeteen mailako ibilbidea antolatu behar izan dute, Kopak hala eskatzen duelako.

Harizti, pagadi eta trikuharrietatik barna

Proba nagusia Etxarri Aranzako kanpinetik abiatuko da 9:30ean, kadeteak eta juniorrak barne. 21 km eta 1.400 metroko desnibel positiboa duen lasterketari egingo diote aurre. Etxarri Aranzako Trikuharrien ibilbidea oinarri hartuta, ibilbide hori luzatu dute antolatzaileek. Proba zorrotza da, baina ezberdina. Izan ere, Triku-traila gehienbat basoan garatzen da. Kanpinetik abiatuta, hariztien ibilbidetik harizti eta pago artean ia estalita ibiliko dira korrikalariak, itzalpean. Kanpinetik aterata Maitzegurretik pasatuko dira korrikalariak, eta segidan Auntzetxetik. Ibilbidean aurrera eginez, Axioaren putzua pasatu

Dortsalak agortuta



Probak 350 parte-hartzailereren muga dauka baina dagoeneko ez da dortsalik geratzen. "Esa- ten digute ea zergatik ez dugun kopurua zabaltzen, baina ez dugu proba gehiegi masifikatu nahi, bestela kalitatean galduko delako. Kopurua zabalduz gero, kanping inguruan aparkatzeko arazoak sortuko lirake, dutsak ere mugatuak dira... 350 korrikalari horiek zaindu nahi ditugu, zerbitzuekin eta lasterketarekin gustura geratu daitezen" adierazi du Triku Trail taldeko Aritz Munarrizek. Triku Trail taldean mendi lasterketetan aritzen diren etxarriarrak biltzen dira. Etxarriko beheko basoan sarritan ibiltzen dira entrenatzen, eta horrela bururatu zitzaizkien mendi lasterketa antolatzea, euren entrenamendu tokia paraje zoragarria delako. "Sekulako basoa dugu, korrika egiteko espeziala. Gorabeheratsua da, malda gogorak ditu, suabeagoak... ibilbide zoragarria da, gogortasun handia ematen dio probari eta jendeari gustatu zaio. Horregatik mantentzen dugu ibilbidea" diote antolatzaileek.

ondoren Lizarrustira helduko dira. Ondoren Txaradigorri trikuharria joko dute. Horixe izango da eremurik gogorrena. Hortik Hirumugeta igoko dute, Otxentara jaitsi eta Fagamendi igotzeko. Handik harizti zaharren ibilbide zoragarritik jaitsiko dira, eta Etxarriko kanpinetik helmugan despedituko da proba. Juniorrek eta kadeteek 15 km-ko ibilbidea osatu beharko dute, nagusien ibilbide beretik abiatuta, buelta motzagoa eginez.

Aurreko urtean 30 graduko tenperaturari aurre egin behar izan zioten korrikalariak eta Juanjo

Igarzabal (1:46:57) eta Aitziber Ibarbia (2:12:34) izan ziren azkarrenak. Iganderako "tarteko eguraldia" espero dela adierazi digu Aritz Munarrizek. "Ez du egingo bezperetan egin duen bero sapatik. Korrika egiteko eguraldi sanoa espero da, hori bai". Eta proba jarraitze- ra Etxarriko kanpinera gerturatze- ko deia egin du Munarrizek. "Giro oso polita sortzen da" gaineratu du.

Sariak, opariak eta auzatea

Antolatzaileek 1.200 euro banatu- ko dituzte sarietan. Lehendabiziko gizonak eta emakumezkoak txapela, trofeoa eta 300 euro jaso-

ko dituzte, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 100 euro eta trofeoa. Lehen juniorrek eta kadeteek trofeoa jasoko dute eta bigarrenak eta hirugarrenak dominak. Lehen junior etxarri- rarak ere trofeoa lortuko du. Bestalde, lehen beteranoendako, lehen sakandarrendako eta etxarri- rrendako ere trofeoa izanen dira. Horretaz gain, korrikalari guz- tiek kamiseta teknikoak eta opa- riak jasoko dituzte eta proba ondo- ren auzate ederra egonen da pro- ba jarraitze hurbiltzen diren guztiondako.

Proba antolatzeko 100 bolunta- rio inguru ariko dira lanean. "Pro- ba honen atzean lan handia dago. Taldean 8 kide gara eta abendutik astero biltzen gara. Eta azkeneko egunetan herritarren laguntza izaten dugu, eskertzekoa. Bestetik, oso eskertuta gaude babesle guz- tiei, bakoitzak ahal duenaren neur- rian lagundu duelako" azpima- rratu dute antolatzaileek.

Txikiendako Trikutxikia

Aurreko urtean Trikutxiki anto- latu zuten lehenengoz, proba ez lehiakorra, neska-mutikoek ongi pasatzeko. Aurten ere antolatuko dute. 10:00etan izanen da, kanpi- naren inguruetan, korrikalariak probanagusi dauden bitartean. "Korrikalari asko familiarekin etortzen dira eta polita iruditu zitzaigun txikiakin distantzia sin- bolikoa duen proba egitea, neska- mutikoek ongi pasatzeko" azaldu digu Aritz Munarrizek. Izena igan- dean bertan eman beharko da eta bertan aritzera animatu dituzte gaztetxoak.

trikutrail.wordpress.com

Probako informazio guztia, ibilbideen tra- ka barne. Facebookean ere (Trikutrail).

Unzurrunzaga aita- semeak, primeran

Tolosaldeko 3 Tontorretan (43 km) Ander Unzurrunzaga 13.a sailkatu zen, eta Agoizko mendi lasterketa luzean Josu Unzurrunzaga 3.a. Agoizko proba motzean Alatz Agirre arbizuarra 3.a sailkatu zen

Unzurrunzaga aita-semeak bikain aritu dira asteburu honetan. Ander Unzurrunzaga Iurrebasok berriro ere sasoi betean dagoela erakutsi du. Igandean Tolosan jokatutako 2. Tolosaldeko 3 Tontorretan (43 km) bikain aritu zen beterano etxarri- rra. Ernio, Erroizpe eta Uzturre gaingitu beharreko proban Ismail Razga santurtziarra gailendu zen (4:04:43), Iker Karrera amezketarra- ri 12 minutu atereaz (4:16:30). Ema- kumezkoetan Oihana Kortazar

izan zen txapelduna (4:50:06). Ander Unzurrunzaga 13.a sailkatu zen (4:45:56).

Josu eta Alatz hirugarrenak

Aita ongi ibili bazen, Josu Unzu- rrunzaga semea baita ere. Larun- batean Agoizko mendi lasterketa luzean (24 km) Victor Amatriain zangozorra izan zen txapelduna (2:17:14). Iosu Unzurrunzaga podiu- mera igo zen, hirugarrena sailka- tu baitzen (1:05:48). Bestalde, Alberto Azparren oibardarrak (1:02:45) irabazitako Agoizko lasterketa laburrean (13 km) Alatz Agirre arbizuarra hirugarrena sailkatu zen (1:05:48).



Josu Unzurrunzaga, ezkerrean, eta Alatz Agirre, eskuinean, Agoizko podiumean.



Ander, artxiboan. C. MALLÉS



Sakandarrak Agoizko Mendi lasterketan

LUZEA (24 KM)

Gizonak

- Victor Amatriain (Zangoza) 2:17:14
- Josu Unzurrunzaga (Etx.) 2:25:30

LABURRA (13 KM)

Gizonak

- Alberto Azparren (Oibar) 1:02:45
- Alatz Agirre (Arb.) 1:05:48
- David Mutiloa (Iru.) 1:14:19

EMAKUMEAK

- Letizia Altuna (Erripa) 1:21:34
- Ainhoa Rivas (Iru.) 1:31:17
- Igone Moreno (Etx.) 1:36:01

Pilota

Bakaikoa eta Erasun txapeldun

ETB-Enpresen Liga Torneoan 22 eta 16 irabazi zieten Errandoneari eta Olaizola II.ari

Aspek eta Asegarek ETB-Enpresen Liga Torneoa antolatu zuten aurreko asteburuan, pilota profesionalak lehenengo aldiz oporrak hartzen zituela eta, hutsune hori betetzeko. Afizionatuen mailako torneoaren zen, Asperekin eta Asegarekin aurre-kontratu duten pilotarien artekoa. Esperimentuak ongi funtzionatu du, maila handiko partidak eskaini baitzituzten torneoan aritu ziren Ugalde-Martinez, Errandonea-Olaizola III.a, Bakaikoa-Erasun eta Peña-Mariez kurrena bikoteek.

Joanes Bakaikoa etxarriarrak Erasunekin osatu zuen bikoa. Eta primerakoa, gainera. Larunbateko finalerdian Peña eta Mariezkurrena 17 tantotan utzi zituzten. Horrela, Ugalde eta Martinez bidean utzi zituzten Errandonea eta Olaizola III.a izan zituzten aurkari igandean Beran jokatuak finalean.

Final ikusgarrian, Joanes Bakaikoa lau pilotarietarik aktiboen izan zen. Ander Erasun ongi aritu zen atzeko koadroetan, Olai-



Joanes Bakaikoa lau pilotarietarik aktiboen izan zen finalean. INTERNET

zola III.a kontrolatzen jakin zuen eta une askotan nafarra dominatu egin zuen. Ander Errandonea tantoa bukatzeko presa gehiegirekin ibili zen, eta tanto luzeetan gainditua ikusi zuen bere burua. Bakaikoa izugarri defendatu zuen eta lehiakor jokatu zuen; ederki estutu zuen Errandonea. Tantoak luze eta gogortu zirenean Olaizola III.a sufritzen hasi zen. 13 eta 4 aurreratu ziren Bakaikoa eta Erasun, eta nahiz eta nafarrak 13 eta 8 gerturatu, etxarriarra eta gipuzkoarra 16 eta 11 aurreratu ziren segidan. Bukaeran, hiru gantxo eta txokoan egindako geldialdi bikaina-

rekin, Joanes Bakaikoak eta Erasunek 22 eta 17 irabazi zuten torneoaren. Asegarekin aurre-kontratu dute biek eta kontuan hartzekoak direla erakutsi dute.

Lasak garaipenarekin debutatu zuen

Adur Lasak Garfe enpresarekin debutatu zuen, larunbatean, Etxarri Aranatzan. Xalarekin bikoa osatu zuen Lasak eta 22 eta 16 irabazi zieten Titini eta Beginori. "Oso gustura, asko disfrutatu nuen" adierazi digu etxarriarrak.

Automobilismoa / 4x4



Pilotuek egin beharreko maniobrak ikusgarriak dira.

San Juanetan 4x4 triala Arbizura

Ekainaren 25ean, larunbatean, 16:00etan

Arbizuko San Juanetan aspalditik dute bere txokoa todoterrenoek. Sakana 4x4 taldeak antolatuta, Arbizu 4x4 Triala jokatu da bihar, larunbatean, 16:00etatik aurrera, Arbizuko industrialdean. Mota guztietako trabak, putzuak eta oztopoak gainditu beharko dituzte gidariek.

Martxoan antolatutako Sakana 4x4 Topaketan prestatutako

guneetatik ahalik eta penalizazio gutxien eginda eta ahalik eta azkarren pasatu behar ziren ibilgailuak. Aldiz, Arbizu 4x4 Trialean ez da denborarik ez penalizaziorik neuritzen, librea izaten da. Topaketan baino zulo handi eta pikugoak prestatzen dira, paretak ia bertikalak dira. Hemen gidarien abilezia ikustea da inportantea. Pilotua eta bere ibilgailua daude eta zulo handi horietatik ateratzea, hori da kontua. Nola egiten duten da inportantea, eta ikusgarriagoa izaten da. Antolakuntzak prestatutako guneak bi norabideetan gainditu beharko dira. Hortaz, ikusgarritasuna ziurtatuta dago eta motorzaleek badute non ongi pasatu.

Mendia

Emakumeendako mendi ibilaldia Urban barna

Bihar, larunbatean, goizeko 9:00etan Olaztik San Migel plazatik edo 10:00etan Morterutxoko parkinetik

Olaztik Udaleko Berdintasun Zerbitzuak emakumeendako mendi ibilaldi polita antolatu du bihar, Emakumeen IV. Mendi Martxa, hain zuzen. Ibilbidea Olaztitik hasi nahi dutenendako hitzordua goizeko 9:00etan jarri dute, San Migel plazan. Bertatik abiatuta, portu zaharretik barna Otsoportilloko gurutzera baino lehen dagoen Morterutxora (890 m) oinez joango dira. Aldiz, ibilbidea Urban hasi nahi dutenek, autoa Morterutxoko parkinean utzi eta bertan bilduko dira Olaztitik oinez abiatu direnekin, goizeko 10:00etan. Ondoren, guztiak elka-

rekin Santa Marina baselizara (1.068 m) joatea da asmoa, eta handik San Adrian baselizara (1.144 m) iristea. Bertan bazkalduko dute eta ondoren buelta hartuko dute, Olaztiraino.

Asmoa emakumeak egun pasa polita egitea da, mendiaz gozatu. Norberak bere bazkaria eraman beharko du eta antolakuntzak pas-

tak eta kafea eramango ditu. Sei ordu pasatxoko ibilbidea da, Olaztitik atereaz gero, eta bost ordu eta erdikoa, Morterutxotik abiatuta Mendiko botak jantzi eta egun bikainaz gozatzera animatu dituzte emakumeak.

Igandean Santa Marinara

Dantzaleku Sakana klubeko mendi ataleko emakumeen taldeak igandean irteera antolatu du. 8:30ean jarri dute hitzordua Altsasuko Foru Plazan eta Santa Marinara joatea da asmoa, korrikan.



Olaztiarrak Emakume Eguneko bazkarian. Bihar mendian dute hitzordua.

Motoziklismoa / Enduro

Beraza, jaioterrian profeta

IV. Irañeta Enduro probako txapelduna izan zen senior mailan

Ziki Team Moto Club taldeak antolatuta, igandean IV. Irañeta Enduro lasterketa jokatu zen senior, junior eta beterranoen mailan. Proba Nafarroako Enduro Txapelketarako eta Vasconavarro Txapelketarako baliagarria zen. Enduroak motokrossaren abiadura eta trialaren teknika nahasten ditu.

Pilotu ugari lehiatu ziren, tartean sakandarrak, giro bikainean. Marcos Beraza pilotu irintarra bere jaioterrian profeta izan zen, senior mailan lehena sailkatu baitzen eta scracheon lehena izan zen. Horri esker, Nafarroako txapelketan



Marcos Beraza goian.

buruan jarri da eta Vasconavarro txapelketan scracha lortu du.

Txapelketari dagokionez, seniorretan Marcos Berazak irabazi zuen (22:54), beterranoetan Egoitz Peñagarikanok (25:31) eta juniorretan Unai Beristainek (26:11). Trofeoan mailan, seniorretan Andoni Erauzkin (26:20) eta juniorretan Unai Beristain (26:11).

Txirrindularitza

Brontzezko Maialen

Espainiako Kopan hirugarrena sailkatu zen iturmendiarrak

Asteburuan VI. Errioxako Gobernuaren Trofeoa jokatu zen, emakumezkoen Espainiako Txirrindularitza Kopa. Junior mailan (70 km) Bioracer taldeko Sandra Alonso izan zen txapelduna (1:59:17). 1:37ra CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia iturmendiarrak sartu zen, hirugarrena. Espainiako brontzezko domina ekarri du iturmendiarrak.

Maiza, Gonzalez eta Irastortza kadeteetan

Kadeteen mailan (35 km). Koryo Car taldeko Alba Gomez izan zen Espainiako Kopako irabazlea (1:06:37). Sakandarrak ongi aritu ziren. Gipuzkoa Rural Kutxako Leire Maiza etxarriarra 33.a sailkatu zen, 1:19ra, bere taldekide Bakarne Gonzalez 36.a, 4:00ra eta CAF Transport Engineering taldean dabilen Joana Irastortza etxarriarra 48.a, 5:50era.



Juniorren Espainiako Kopako podiuma. Maialen Aramendia, eskuinean.

Odei Juango

Egunotan Espainiako 23 urtez azpiko Txirrindularitza Txapelke-

tak jokatu dira. Rural Kutxa talde sakandarreko Odei Juango lehiatuko da bertan.

Xabier Maiza 8.a Euskadikoan

Igandean LXXXI. San Juan Saria jokatu zen Eibarren, junior mailako Euskadiko Txapelketa. Victor Alvaro Construcciones taldeko Xabier Mikel Azparren izan zen txapelduna (2:28:56). Segundo batzuetara tropeltxo bat sartu zen eta bertan Quesos Albenizko Xabier Maiza lakuntzara zegoen, helmugan 8.a izan zena (2:29:31). Bere taldekide Alex Unzilla 41.a sailkatu zen.

Futbola



Altsasuko nesken taldea, Dulantzin txapelkunordeak izan zirenean. SDA

Emakumeen senior taldea sortu nahi du Altsasuk

Interesatuak Sociedad Deportiva Altsasura jo behar dute

Lan handia eginez eta ederki kostatuta sortu zen, aurreko urtean, emakumeen futbol taldea Altsasun. Taldea Emakumezkoen Futbol 8 mailan lehiatu da eta primerako lana egin du. Lehen fasean 1. multzoan lehiatu zen Altsasu eta bigarrena sailkatu zen, Gazte Berriak liderrarekin puntutara berdinduta (27 puntu). Eta 2. fasean bosgarrena sailkatu da Altsasu (8 puntu). Kirol Sportek irabazi zuen liga (28 puntu).

Maiatzaren bukaeran Dulantzin futbol torneo jokatu zuten eta txapelkunordeak izan ziren, finalen Revellin taldearen kontra 1 eta 2 galdu eta gero. Taldeko jokalariek Jone Apaolaza, Saioa Sayas, Nerea Arellano, Udane Vergara, Ainhoa Agirre, Amets Oteiza, Aroa Cerezo, Silvia Amores, Mainer Grani-zo, Irati Igoa, Naroa Barriola eta Eider Vicente dira eta Gorka Pascua eta Adrian Claverren agindutara entrenatzen dira.

Emakumezkoen hiru talde

Baina orain aurrerapauso bat eman nahi du Sociedad Deportiva Altsasuak eta beste bi talde sortu nahi ditu. 2016-2017 denboraldian emakumezkoen hiru talde nahiko lituzke Altsasuk: orain artekoa, Futbol 8 mailakoa, kimuen eta haurren mailakoa, senior mailakoa taldea eta eskolako taldea, txikiena. "Emakumezkoen futboleko historia egiten ari gara. Datorren denboraldirako futbola gustuko duten neska gehiago behar ditugu, 2009an edo lehenago jaiotakoak, hiru talde sortzeko: erregionala Futbol 11, haur-kimuen Futbol 8 maila eta eskola, kategoria txikia. Sakanako neska bazara eta futbola gustatzen bazaizu, ez pentsatu bitan eta animatu!" adierazi dute Sociedad Deportiva Altsasuko ordezkariak.

Izena emateko

Sociedad Deportiva Altsasura edo 619 860 336 telefonora jo (Gorka).

Areto futbola

Parkea Martxan areto futbol txapelketa, abian



Bandiduek eta Los Suaves, lehen jardunaldian.

Igandean hasizena Lakuntzako Parkea Martxan areto futbol txapelketa. 9 talde lehiatuko dira, bi multzotan banatuta. A multzoan Tximistak, Los Suaves, Isi Team, Bandiduek eta Irrikizitziyuek daude eta B multzoan Biltoki neskak, Burutik Jotak, Kaimanak eta Karrotillo.

Partiden arteko atsedendaldian Supercrack erronka jokatu da. Porteriak zuloz betetako plastikoekin estaliko dira eta gola sartzea da erronka.

1. jardunaldiko emaitzak

Tximistak 5 - Irrikizitziyuek 2
Bandiduek 4 - Los Suaves 6

2. jardunaldia

Larunbatean

19:00etan: Tximistak - Isi Team

20:15ean: Karrotillo - Burutik Jotak

Igandean

19:00etan: Irrikizitziyuek - Bandiduek

20:15ean: Biltoki neskak - Kaimanak

Kirolegia

Kintana, Fernandez, Iriarte eta Jaka, bekatuta

Indurain Fundazioko beka jaso dute 110 kirolari nafarrek

Miguel Indurain Fundazioak urteko beka banatu zituen aurreko ostegunean Gorraizeko Gaztelu-Jauregian egindako ekitaldian. Miguel Indurain Fundazioko bazkidesortzaileak Nafarroako Gobernua, Nafarroako Industria eta Komertzio Ganbara eta Espainiako Komite Olinpikoa dira, eta Nafarroako errendimendu altuko kirolariak laguntzea da bere funtzio nagusia. Kirolariak 2015ean lortutako emaitzak kontuan hartuta erabaki dira aurtengo onuradunak eta aurtengo 173.705 euroko dirulaguntzak banatu ditu aipatu fundazioak, 110 kirolariren artean.

Sakandarrak

Tartean lau kirolari sakandar daude. Banakako kirol olinpikoen atalean June Kintana disko jaurtitzaila bakaikoarrak 4.200 euroko laguntza jaso du, 2015ean Espainiako Txapelketan 2.a sailkatu eta gero. Kirol ez olinpikoen atalean Joseba Fernandez irristalari itur-mendiarrari 2.100 euroko laguntza eman diote, 2015ean, besteak beste, Irriastaketa Mundialetan 3.a sailkatzeagatik. Hiriberriko Jose Luis Iriarte arku jaurtitzaila 525 euroko laguntza jaso du Tiro Jaurtike-ta Mundialetan 4.a sailkatzeagatik. Eta, bukatzeko, kirol egokituen atalean Rosa Jakak 125 euroko laguntza jaso du.



Iriarte arku jaurtitzaila. Hiriberrikoak Indurain Fundazioko beka jaso du.

Automobilismoa

Beste garaipen bat

Carlos Aldekoa pilotuak eta Javi Goikoetxea kopilotu olaztiarrak Naxerako Rallya irabazi dute

VI. Naxera Hiria Lur Gaineko Rallya jokatu da asteburuan eta Carlos Aldekoa pilotuak eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarrak (Ford Fiesta R5+) sekulako erakustaldia eman zuten, probako txapelkunordeak izan baitziren (20:01). Probako hiru eremutan gailendu zen bikotea, eta 28 segundoko aldea atera zieten Ruben Lapuenterri eta Alba Sanchez (Clio Sport, 20:29).



Lan bikaina egin zuten. LANDER ZABALETA

Asteburu honetan Espainiako Rallye Txapelketarako baliagarria den Bierzoko Lur Gaineko Rallyan ariko dira Aldekoa eta Goikoetxea.

Areto futbola

Futsal campusa Irurtzunen

Abuztuaren 1etik 5era izanen da eta izena ematea zabalik dago uztailaren 22ra arte

Irurtzunen areto futbol campusa antolatuko dute abuztuaren 1etik 5era. Futsal campusean 5 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetxoek eman ahaliko dute izena. Klaseak areto futboleko esperientzia handia duten Dani, Igor eta Javi Saldise jokalariek eskainiko dituzte eta goizeko 9:00etatik 16:30era bitartean gauzatuko da, Irurtzuno Atakondoa kiroldegian.



Javi Saldise, Magnan zebilenean.

Izena ematea zabalik dago, uztailaren 22ra arte (120 euro), ondoko telefonoetan: 689 451 677 (Dani), 630 569 675 (Igor) eta 686 435 645 (Javi). 5 eguneko formazioa, hamaiketakoa eta bazkaria, ekipazioak eta erantzukizun zibileko aseguruak jasoko ditu ikasleak, eta hainbat sorsopresa iragarri dituzte.

Non erabili

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

EDERNE

ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuekin, makilaje ukitua doan.

GK

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU

% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

MARI JOSE

ILEAPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDIAK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

LOPEZ DE GOIKOETXEA

HARATEGIA

URDIAN

50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

kultura >>

Laukote baten Oihartzuna

Oihartzuna taldeak estreinako kontzertua Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean eman zuen asteartean. Gitarrak aldean zitutela oholtzara igo ziren Leire Nuncio, Izaskun Rojo, Maria Ijurko eta M^a Victoria Alvarez. Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako gitarrak ikasleak dira laurak. Eta ikasketa prozesuaren barruan taldeka jo behar dute. Horregatik, ikasturte honetan hiruko bat osatua zuten, eta kantu bat moldatuta ere. Saio haietako batera entzute-ra sartu zen Leire eta ordutik lau-koa dira. Taldeak bultzada hartu zuen eta ordutik kantuak moldatzen ari da gitarrak laukotea.

Taldearen izenez galdetuta,



“soinuarekin eta musikarekin zerikusia zuen izen bat nahi

genuen. Oihartzuna. Pentsatu genuen horrela mundu guztiak

entzun dezakeela.” Orain arte beste talde eta bakarlarrien kantuen bertsioak egiten dituzte. Ingeleseztan eta euskaraz kantatzen dute, popetik rockera bitarteko eremuan. Hala, Adeleren, Ken 7ren, Foreignen, Guns and Rosesen, Justin Bieberren eta abarren doinuak daude euren errepertorioan. “Gustatzen zaiguna jotzen dugu.” Haiek euren kantuak sortzeaz galdetuta, iritsiko dela esan dute hiruk eta Leirek jakinarazi die hasi dela.

Prestatutakoa jendaurrean emateko urratsa ere eman dute. “Ongi egon zen, jende gutxi baina etorriko da jende gehiago. Martxan!”. Udan, eguraldi oso ona egiten ez duen egunetan musika eskolan elkartuko dira, hala eskaini dietelako. Puri Altzelai irakasleak udazken hasierarako Haritza tabernan beste emanaldi bat lotuko dien esperantzarekin daude.



Sokazko laukotearen kontzertua

Larunbatean, 24:00etan, Arbizuko kanpinoko Amari aretoan

Araitz Bizkai gitarrak jolea Arbizura hirukote bat lagunduta etorriko da bihar. Oihane Igerabidek arpa joko du, Joan Mirók perkusioa, neya eta lautea eta, azkenik, Unai Rodriguezek gitarrak joko du.

Gaia eta kultura fusio musikatua

Gaur, 20:00etan, Olatzagutiko Sarasate plazan

Ardanfusio taldea da hainbat gai eta kultura fusionatuz euren musika estiloa sortzen duena. Montse Zabalzak (ahotsa), Francisco Herrero (biolina eta biola), Txema Garcesek (kontrabaxua) eta Joseba Loinazek (teklatura) osatzen dute taldea.

Eurena errepertorio anitza da, tinbre harmonikoak eta erregistro akustikoak uztartzen dituena. Haiek sortutako konposizioekin batera, beste sortzaile batzuen lanak ere moldatzen dituzte. Hala, Brel, Leonard Cohen, Mikel Errazkin, Imanol eta beste hainbat egileren doinuak biolin, kontrabaxu eta teklatura moldaketa landuekin eskainiko dituzte.

Musikarekin batera, hitzak ere garrantzia izanen du. Japoniar



jatorria dituzten haikuak, garai batekoak eta gaur egungoak, entzuteko aukera izanenda. Hori-ekin batera, Mikel Arregi, Lorca eta beste hainbat idazleren testuen errezitaldiak egingen dituzte.

Kultur programa

Nafarroako Gobernuak antolatutako emanaldia da Olatzagutiko gaurkoa. Kultur programak udarako eskaintza osatuak eskaini nahi ditu. Hala, emanaldi bako-

tzarekin batera jarduera osagarriak izanen dira. Olatzagutiko kasuan, bi dira proposatzen diren jarduerak. Batetik, Arruazun dagoen Albi gaztandegira bisita gidatua. 11:00etan izanen da. 681 083 409 telefonoan eman behar da izena. 20 pertsonako taldea sortuko da gehienez. Izen emateak 6 euro balio du helduendako eta 4 haurrendako.

Bigarren jarduera osagarria Urbasako Baso Sorgindura bisita izanen da, 15:00etan abiatuko dena natur parkeko informazio guneetik. 15 pertsonarendako tokia dago. Interesatuak 608 560 369 telefonora edo info@mirua.com e-postara jo behar dute izena emateko. Ibilbide gidatuak 10 euro balio du.

Irurtzunen festa-dantza prestatzen

Irurtzunen festetako egitarauan hutsik egiten ez duen hitzorduetako bat da iluntze aldera izaten den Larrain-dantza. Dantza ikasi edo jakindako dantza-pauso-

ak freskatzeko ikastaroa martxan dago. Aurreko bi ostegunetan izan da eta hurrengoan despedituko da. Hitzordua Atakondoa eskolako gimnasioa jarria dago, 20:00etan.



Festetarako Larrain-dantza ikasteko aukera dute irurtzundarrek. WWW.IRURTZUNEUSKARAZ.COM

JANATXO
katering zerbitzua
etxe sukaldaritza
etxe postreak
ARBIZU
948 460 209
686 654 382

karrika taberna
Bokatak
Plater konbinatuak
Kaxuelitak
948 46 21 37

FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izan bat du
Txistor ekologikoa
Ongi Pasa festak!
Urtzabar Industriak - RIF. - Faxa: 948 460 499

arbizuko kanpinoko taberna
ONDO PARRAJETAN!
KAMPINA
Erreserbak: 635 093 140

bazterretik

Izaskun Beunza



Zaha-Hadid, munduko arkitektuaren izarra

Apirilean arkitektura munduak berri deitoragarria jaso zuen eta oraindik dolu dirau. Zaha Hadid (Bagdad, 1950), arkitekto anglo-irakiar entzutetsua bihotzeko baten ondorioz Miamin hil zen, 65 urterekin.

Eraikitzen hasi baino lehenago ere historia egin zuen arkitektuaren erregina izan zen. Nazioartean bere marrazki neokonstruktivistengatik ospetsua zen Rolf Fehlbaum-ek, Vitra altzarietako Alemaniako enpresaren jabeak, 1994. urtean bere lehen eraikina altxatzeko aukera eman zionean: fabrikarako suhiltzaile geltokia. Hamarkada bat geroago Pritzker saria (2004) lortu zuen eta harekin lanbideak ezagutu duen ibilaldi emankorrenetako bati hasiera eman zion, are gehiago emakume baten eskuek izanagatik. Oztopolasterketa hirukoitza. Eraikin enblematikoak eraiki nahia, bere adopzio aberrian, Erresuma Batuan, eta emakumea izanez. Ez zen erraza izan.

Hadideknazioartean lehiaketak irabazi zituen, Galesen Cardiffeko Opera esaterako, azkenik Norman Foster arkitekto gizonetzakoak eraikiko zuena. Bidegabekeriari eusten jakin izan zuen.

2003an Cincinnati (Ohio) Arte Zentroa inauguratu zuenean, bere lehen proiektu iparramerikarra, arkitektura munduak lupaz ikusi ahal izan zuen arkitekto hauslearen planoen transformazioa nola

izan zen, paperetik hiru dimentsiolarara. Airoso irten zen iritzietatik eta bere buruari gehiago eskatu beharra ziola ulertu eta gehiago arriskatzea erabaki zuen. "Arkitekturaren mugak apurtzen saiatuz" eraikinak paisaia bihurtzeaz eta eraikuntzen muga fisikoak birpentsatzeaz hitz egiten zuen.

Zaha Hadidek emandako elkarrizketetan hiru kontu era errepikarior agertzen ziren. Batetik, bere kide arkitektoen laguntza ezaz hitz egiten zuen, Cardiffeko Operakoa bezalako bidegabekeriaren aurrean. "Ez naiz inoiz izango haiek bezalakoa" zioen. "Ez dut nabigatzen, musulmana naiz eta emakumea naiz". Bigarren gaia Bilboko Guggenheima zen. Hadid Gehryren eraikinaren ausardiari oso eskertuta zegoen. Guggenheim inauguratu zenean berak proiektu hausleak sinatuz hamarkadak zeramala eztabaidatzen ziotenean, arrazoia ematen zuen. Eta azalpena ere: "Guggenheimek atea ireki zuen. Gizon batek ireki behar zuen. Ez ninduten ni utziko. Horregatik esker oneko nago. Proiektu horri esker eraiki ahal izan dut". Hirugarren kontua bere ideia eta nortasunaren defentsa zen. Ez zen hurarrepikatzeaz nekatzen: "arkitekturaren mugak apurtzea funtsezkoa zen, beti eta beti". Muga fisiko, formalez ziharduen, eta hain zuzen ere berak lortu zuela aitortu ere egin zuen. Beste kontu bat ere utzi zuen kitatuta. Mundu arabiarrean bere ibilbideak emakume askok arkitektura ikasi nahi zezatela eragin zuen. Ez du nabigatuko agian, hainbeste arkitekto bezala, baina argi dago urteak direla jada arkitekturaren historia izatera pasa zela.

Memoria ariketa ikuskizun bihurtuta

Oroimenez Arbizuk 1936aren ondorengo gertaerekin sortutako ikuskizunaren lekuko izan ziren berrehun eta luze arbi-zuar. Emanaldiaren zama herritarren garaiko bizipenetan oinarritutako 10 kontakizun izan ziren. Hamar ahots Zoila Berastegi aktoreak bere zituenak, gorpuztu zituenak; bere iragan latz eta gordinaren zati zirenak. Ahotsek euren narrazio dramatizatu eta aurrera egiten zuten heinean ikusleek aktorea iragan hori ezin azaleratu eta ezin aurrera egin ikusi zuten. Ezin bizitzan aurrera egiteko ate berria zabaldu. Horretarako giltza egokia behar baita.

Berastegik ikuskizunean aldamenen izan zuten bakarra Maia izan zen, harekin antzerki tailerrean ikasitakoa. Ahotsek kontakitako 10 istorioei garrantzia eman nahi izan zieten, eszenografia elementu oso gutxi osatu zuten: altzari gutxi batzuk, maingidiez osatutako oihal handi bat, maletak, soka, atea.

DVD

Larunbateko emanaldia jasotzen duen DVDa asteburuan jarriko dute salgai. Oroimenez Arbizun taldekoek mahaitxo jarriko dute horretarako. Duela 80 urteko estatu kolpearen ondoren errepresioa pairatutako omenaldia da. Aldi berean, taldeak ikasturtean zehar egindako lana borobiltzen du.



Margolari sarituak

Koadro baten bizitza ezkurtua. Izenburu hori zuen pintura lehiaketaren aurreneko edizioa antolatuko dute Nafarroako Unibertsitateko Museoa eta Morras Cebrian fundazioak. Lehiaketaren helburua ikastetxe eta pintura-akademietako ikasleen artean pintura garaikideko sormena sustatzea da. Bost maila izan zituen lehiaketak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Biga-



arren Hezkuntza, pintura akademiak eta Hezkuntza Berezia. Azken maila horretako sarietako

bat Isterria ikastetxearendako izan zen. Han ikasten duten bi ikasle sakandarrek jaso zuten saria.

LONBREN denda
Zure eguneroko denda

Aliprox

ONGI IBILI SAN JUANETANI

Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia - ARBIZU

Bazkariak eta afariak gurean. Zatoz!!!

info@hotelolatzea.com • www.hotelolatzea.com
Errota kalea z/g • 31839 Arbizu
T 948 461 876 • F 948 461 877

G

asteko >> : eguraldia

| | | | | | | |
|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|----------------|-----------------|-----------------|
| ostirala | larunbata | igandea | astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna |
| | | | | | | |
| euria: 60% | euria: 30% | euria: 15% | euria: 10% | euria: 10% | euria: 10% | euria: 15% |
| Min: 15 Max: 18 | Min: 12 Max: 16 | Min: 10 Max: 17 | Min: 10 Max: 20 | Min: 9 Max: 24 | Min: 11 Max: 24 | Min: 12 Max: 27 |

: temperatura>>

| | Max. °C | Min. °C | euria l/m² |
|------------|---------|---------|------------|
| Irurtzun | 42.5 | 7.5 | 13.6 |
| Etxarri A. | 32 | 6 | 18 |
| Altsasu | 32.5 | 7.5 | 13.6 |
| Aralar | 24.5 | 3.4 | 15.9 |
| Urbasa | 28.5 | 5 | 10.8 |

: ilargiaren aldia>>

| ilbehera | ilberri | ilgora | ilbete |
|----------|---------|--------|--------|
| | | | |
| 27 | 4 | 12 | 20 |

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

EKAINEN SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

>> 11 galdera

Mari Jose Razkin Lizarraga
Arbizuko Mari Jose ile-apaindegia

Testua: Erkuden Ruiz Baroso



gk

KOMUNIKAZIOA

festak gurekin

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

- 1. Noiz zabaldu zenuen ile-apaindegia?**
1991ko maiatzaren 12an zabaldu genuen. Aurten 25 urte bete ditu. Amaren etxean hasi nintzen gela batean eta hor egin nituen hama-bi urte edo. Gero lekuz aldatu nintzen. Garai onak eta txarrak bizi izan ditut. Baina pozik egoteko moduko zerbait da. Ilusioa egin dit 25. urtemugara iritsi izana.

2. Arbizuko lehena izan zen?
Ez, bazegoen beste bat. Beste neska bat egon zen urte askoz. Orain dela hiru urte edo jubilatu zen.

3. Nola animatu zinen ile-apaindegia irekitzera?
Betidanik gustatu izan zait. Amarekin joaten nintzen pelukeriara bera ikusteko eta beti laguntzen nion. Txikitatik gustatu zait.

4. Zein bezero dituzu bereziki?
Hiru mota daudela esan dezaket. Emakume oso helduak, gero badauzkat berrogeita hamar urte inguruko emakumeak, gehienak edade horretakoak dira, eta gazteak ere etortzen dira. Herrikoak eta inguruko herrietako jendea. Mutikoak ere etortzen dira, bai.

Nahiko mutil etortzen dira, adinokoak baino gehiago.

5. Sakanan asko zaintzen eta prestatzen gara?
Nik uste baietz. Herri guztietan. Gaur egun itxurari garrantzia ematen zaio.

6. 25 urte hauetan moda asko ikusiko zenituen, ez?
Modak ez. Agian jendea lehen gutxiago etortzen zen pelukeriara. Afaria zutela eta pelukeriara etortzen ziren orraztera. Orain ez. Orain tindatzea tokatzen zaionean, bai etortzen dira; hilero edo hilabete eta erdiro etortzen den jendea badago. Baina astero ez, lehen gehiago etortzen ziren astero orraztera. Orain etxean gehiago egiten du jendeak.

7. Zein dira gaur egungo tendentziak?
Asko aldatu da. Azkenengo bi urteetan metxa gehiago jartzen ziren, orain gutxiago ikusten dira. Tinte gehiago ikusten da orain, eta metxak puntetan. Ilearen luzerari dagokionez nik uste alde honetan motza dela gehien eramatea dena. Badauzkazu gazteak ile luzeekin bakarrik zentimetro bat
- moztea eskatzen dutenak. Baina gehienak motzak.

8. Sanjuanetarako jendea ile-apaindegitik pasatzen da?
Asko. Asko nabaritzen da. Sanjoanak eta Gabon aurrea izaten dira lan askoko garaiak.

9. Produktuak eta tresnak aldatu dira?
Bai, pila bat. Produktu pila bat dago orain. Nik uste ez dakitela zer izen jarri. Denetarik dago. Ilea kizkurtzeko, adibidez. Nik uste izena aldatzen diotela eta produktu berdinak direla. Asko daude, asko.

10. Zer egiten duzu ile-apaintze munduan eguneratua egoteko?
Urtean behin ikastaro bat edo bi egiten ditut normalean. Otsailan bat eta gero udazken aldean egiten dut, lastailean edo, beste bat.

11. 25 urte bete ditu ile-apaindegia. Zerbait berezia egin duzu ospatzeko?
Ez. Nik ospatu dut nire senar eta familiarekin. Ezinezkoa da. Jendea oso desberdina da eta ezin duzu denekin kunplitu. Aurreko astean pastak eta kafea atera nituen. Baina ez dut ospakizun handirik egin.

ondo pasa!